

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

148/2023 Foru Agindua, azaroaren 3koa. Lacorzanako (Armiñón) Ekienea parke fotovoltaikoaren plan bereziaren behin betiko onspena

2020ko uztailaren 17an, Ekienea SL enpresak Lacorzanako (Armiñón) Ekienea parke fotovoltaikoaren plan bereziaren zirriborroa eta ingurumen-dokumentu estrategikoa aurkeztu zituen Armiñongo Udalean.

2020ko uztailaren 21ean, Armiñongo Udalak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua eskatu zion Arabako Foru Aldundiaren ingurumen-organoari, aipatutako dokumentazioarekin batera.

2020ko abenduaren 16an, plan bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua eman zuen Arabako Foru Aldundiaren ingurumen-organoak.

2021eko apirilaren 21ean, plan bereziari hasierako onspena emateko dokumentua eta ingurumen-ebaluazio estrategikoa aurkeztu zituen Ekienea SLk Armiñongo Udalean.

Armiñongo alkatearen maiatzaren 19ko 32/2021 Dekretuaren bidez, hasierako onspena eman zioten plan bereziari, eta, aldi berean, jendaurrean erakusteko izapidea egin, berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu zenetik zenbatzen hasita (2021eko uztailaren 14an argitaratu zen, 78. zenbakian); halaber, El Correo egunkarian argitaratu zuten, 2021eko abuztuaren 17an. Bestetik, eragindako administrazio publikoei eta aurretik kontsultatuko interesdunei kontsultak egiteko izapidea egin zen, epe berean.

Era berean, arloan eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio-batzarrei hasierako onspena jakinaraztea erabaki zuten, jakinaren gainean egon zitezten eta txostena egin zezaten.

Jendaurrean erakusteko aldi, sei alegazio aurkeztu ziren; sustatzaileak 2021eko abenduaren 10ean eman zuen alegazioei buruzko txostena, eta udal-arkitektoak 2022ko otsailaren 2an.

2022ko otsailaren 9an, plan bereziari behin-behineko onspena emateko dokumentua aurkeztu zuen Ekienea SLk Armiñongo Udalean.

Udalak, 2022ko apirilaren 1eko bilkuran, alegazioak ezestea eta alegazioak aurkeztu zituztenei erantzun arrazoitua jakinaraztea erabaki zuen. Bestetik, plan berezia behin-behinean onestea erabaki zuen, bai eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari eta Arabako Foru Aldundiaren ingurumen-organoari igortzea ere.

Ingurumen eta Hirigintzako foru-diputatuaren uztailaren 7ko 166/2022 Foru Aginduaren bidez (2022ko uztailaren 27ko ALHAO, 86. zk.), ingurumen-adierazpen estrategikoa eman zen, planari erantsi beharreko zehaztapen, neurri edo baldintzekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako batzordeak espedientearen txostena egin zuen uztailaren 13ko 4/2022 bilkuran, eta horren inguruan emandako ziurtagirian jaso ziren baldintzak ezarri zituen. Horrez gain, adierazi zuen espedientea ez zitzaizola batzordeari berriro aurkeztu beharko.

2023ko maiatzaren 26an, plan bereziari behin betiko onspena emateko dokumentua aurkeztu zuen Ekienea SLk Armiñongo Udalean.

2023ko uztailaren 20an, Armiñongo Udalak plan berezia behin betiko onetsi zezala eskatu zion Arabako Foru Aldundiari.

2023ko uztailaren 26an, Arabako Foru Aldundiak errekerimendua egin zion Armiñongo Udalari, espediente osatzeko dokumentazioa aurkez zezan, eta berariaz adierazi zion dokumentazio hori bidali arte ez zela zenbatzen hasiko behin betiko onespena emateko ezarrita dagoen bi hilabeteko epea.

2023ko irailaren 6an, Armiñongo Udalak eskatutako dokumentazioa aurkeztu zion Arabako Foru Aldundiari.

2023ko irailaren 12an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Iraunkortasunerako Zerbitzuak txostena eman zuen, ondorioztatuz behin betiko onesteko aurkeztu zen plan bereziak behar bezala jasotzen zituela ingurumen-adierazpen estrategikoak ezarritako ingurumen-baldintzak.

Aurrekari horiei aplikagarri zaizkie zuzenbideko oinarri hauek:

Lehenengoa. Plan bereziaren helburua eta muga

Plan bereziaren helburua da 170 hektareako hirigintza-eremu bat mugatu eta antolatzea, eguzki-instalazio fotovoltaiko bat ezarri ahal izan dadin bertan, 135 MW-ko ekoizpen balioetsiarekin.

Plan bereziaren antolamendu-eremua lurzoru urbanizaezin batean kokatuta dago, Lacorzana izeneko zonan, Armiñón udal-mugartearen barruan (Araba). 170 hektareako azalera dauka, honako muga hauekin:

- Iparraldean, Erriberabeitia udal-mugarteko lurzoru urbanizaezina dago.
- Hegoaldean, Zadorra ibaiak (Ebro ibaiaren bokaletik hurbil) eta Lacorzanako urmaelak mugatzen dute eremua.
- Mendebaldean, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Gaztela eta Leonen arteko muga dago; zehazki, Miranda Ebro udalerriko Bayas industrialdea.
- Ekialdean, Lacorzanako landagunea eta Ribagudara daraman landa-bidea daude.

Proposamenaren sustatzailea, lankidetzat publiko-privatu baten ondorioz, Ekienea SL sozietatea da, non partaideak baitira Eólicas de Euskadi SL (Iberdrola), Energiaren Euskal Erakundea (Eusko Jauriaritza), Enargi Araba (Arabako Foru Aldundia) eta Krea Energía SL.

Memoriak plan berezia justifikatzen du: bat egiten du Euskadiko 2030era begirako energia-politikaren jarraibideekin, ingurumen-onurak ekarriko baitizkie garapen jasangarriari eta klima-aldaketaren kontrako borrokari.

Plan bereziaren dokumentu teknikoaren memoriak antolatzen du etorkizuneko Ekienea parke fotovoltaikoa, eta, zehazten duenez, urtean gutxi gorabehera 175.000 MWh ekoiztea da asmoa; hau da, 70.000 familiak urtebetean egiten duten kontsumo elektrikoaren energia elektriko baliokidea. Hala, 42.300 tona CO₂ inguru isurtzea saihestuko da.

Proposatutako antolamendua deskribatzen den atalean, eremuaren mugaketa ondo justifikatuta dago, eta proposatutako parke fotovoltaikoa ezartzeko beharko diren hirigintza-zehaztapenak ezartzen dira.

Bigarrena. Plan bereziaren hirigintza-justifikazioa

Armiñongo "Ekienea" Eguzki parke fotovoltaikoaren plan bereziaren dokumentu teknikoa, 2023ko maiatzekoa, zuzena da: egitura formal eta material egokiak dauzka, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zehaztapenak betetzen ditu, baita legedi sektorial aplikagarria eta lurralde-antolamenduko indarreko tresnak ere.

Plan bereziaren hirigintza-izapidea egin bitartean, nahitaezko ingurumen-izapide estrategikoa egin da; bada, planak aldeko ingurumen-adierazpen estrategikoa jaso du, eta adierazpenen jasotzen diren baldintzak ondo sartu dira plan bereziaren dokumentu teknikora, 2023ko maiatzekora.

Armiñongo hirigintza-antolamenduko arau subsidiarioak 1999ko ekainaren 18an onetsi ziren, eta 2000ko otsailaren 18ko ALHAOn argitaratutakoan jarri ziren indarrean.

Plan bereziak lurzoru urbanizaezinean hartzen duen 170 hektareako mugaketak Armiñongo indarreko arau subsidiarioen hainbat hirigintza-esparru biltzen ditu. Esparruotan baimenduta dauden erabilerak 147. artikuluan erregulatzen dira. Eguzki-energia fotovoltaikoaren erabilera ez dago zuzenean sartuta Armiñongo antolamenduaren indarreko arau subsidiarioen hirigintza-araudian. Hala ere, onura publikoko eta gizartearen intereseko instalazio edo azpiegituren erabileraren barruan koka daitekeela balioetsi dugu, eta erabilera hori baimenduta dago 2., 4., 5. eta 6. esparruetan. Plaka fotovoltaikoak ezingo dira kokatu 8. eremuan (kultura-izaerako ondatsun higiezinak babesteko zona), 9. eremuan (bide-komunikazioak babesteko zona) eta 10. eremuan (ur-ibilguak eta -masak babesteko zona).

Bestetik, Armiñongo arau subsidiarioen hirigintza-arau orokorren 150. artikulua ezartzen duenez, aurreikusita ez dauden bestelako erabilerak sartu ahalko dira, lurzoru urbanizaezinean gauzatzeko plan berezi baten bidez. Planean, erabilera edo jarduera hori landa-ingurunean kokatu behar dela justifikatu beharko da, eta kasu hauetan bakarrik egin daiteke hori: a) jardueraren izaera, kokapen zehatzik behar izan gabe, hiri-ingurunearekin bateraezina bada; horrelakoetan, nekazaritzako eta abeltzaintzako eremuetan bakarrik kokatu ahalko da jarduera; b) jarduerak, duen izaera dela-eta, zalantzarik gabe lursail jakin batean kokatzea eskatzen badu, bai lursailaren ezaugarriengatik, bai erabileraren edo jardueraren baldintzatzaile teknikoek lursail zehatz hori behar dutelako, lursailaren ezaugarriak direla-eta, eta c) erabileraren edo jardueraren baldintzatzaile teknikoek jarduera hori toki zehatz hautatu batean kokatzea eskatzen eta babes-maila gutxiagoko beste eremu batzuetan finkatzea galarazten badute.

Hirugarrena. Plan bereziaren premiaren justifikazioa

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde- eta hirigintza-antolamenduak hirigintzaren bidez eraldatzetik babestutako landa-lurzoruan, "Salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira."

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, "Lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hoguei egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren."

Xedapen hori garatzen du premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikulua, 4.2 artikuluekin lotuta. Artikuluon arabera, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan jasotako jarduketak baimentzeko, eta, gainera, ingurumen-inpaktuaren adierazpen individualizatua behar badute, eta 5.000 metro karratu baino gehiagoko azalerari eragiten dietenak baimentzeko, plan berezi bat idatzi eta onetsi beharko da modu osagarrian, bat etorrira ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan esandakoarekin.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 59.2.c.7 artikuluan, azpiegiturak, zuzkidurak eta ekipamendua ezarri eta zehaztea helburu duten plan bereziak aipatzen dira; bada, artikulua esaten duenez, plan horiek 28. artikulutan jasotzen diren mugaketak errespetatu beharko dituzte, lurzoru urbanizaezinari eragingo badiote.

Laugarrena. Interes publikoaren justifikazioa

Proiektuaren interes publikoari dagokionez, plan bereziaren helburua aintzat hartu behar dugu: parke fotovoltaiko bat ezartzea da helburua, energia elektriko garbi eta berriztagarria ekoizteko.

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legeak 2.2 artikuluan ezartzen duenez, "Energia elektronikoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzua da". Instalazioaren ezaugarri zehatzei dagokienez, aplikatzekoa da energia berriztagarriei eta trantsizio energetikoari buruzko araudia.

Europako Kontseiluaren 2022ko abenduaren 22ko 2022/2577 Erregelamenduak (EB) argi erakusten du Europar Batasunak helburuen artean daukala energia berriztagarrien hedapena azkartzea. 3. artikuluan ezartzen denaren arabera, "iturri berriztagarrietatik datorren eta sarera konektatuko den energia ekoizteko zentralen eta instalazioen plangintza, eraikuntza eta ustiapena, baita konektatutako sarea bera eta metatutako aktiboak ere, goi-mailako interes publikokoak direla ondorioztatuko da".

Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak energia-hornikuntzak eta haren erabilera pertsonen bizitzarako duten berezko izaera jasotzen du, eta energia berriztagarriak azpimarratzen ditu. Lege horren helburuen artean nabarmentzen dira energia-konsumoa murriztea, jasangarritasun energetikoa bultzatzea eta sustatzea eta ingurumena babestea, energia berriztagarriko instalazioak ezarriz. Legearen 4. artikulua iturri berriztagarrietatik lortutako energiaren definizioa jasotzen du, eta iturri ez-fosiletatik eskuratutako energia gisa definitzen; halaber, berariaz aipatzen ditu energia eolikoa, hidraulikoa, geotermikoa, eguzki-energia eta beste batzuk. Lege beraren 5. artikulua lege horren helburuak ezartzen ditu, eta b) apartatua honako hau jasotzen du: "energia berriztagarriak sustatzea eta ezartzea, erregai fosilekiko mendekotasuna gutxitzeko".

Bestalde, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsitako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) ezartzen dute energia berriztagarriak gero eta gehiago erabili behar direla gure lurraldearen eraikuntzan. Memoriaren 8. kapituluak, baliabideen kudeaketa jasangarriari buruzkoak, honako hau ezartzen du: "efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak dira Euskadiko 2030eko Energia Estrategiaren (3E2030) bi ardatz nagusiak, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasunerako, lehiakortasunerako eta klima-aldaketaren aurkako borrokarako. Lurralde-estrategiaren energia-arloko beste zenbait erronkari ere heldu behar zaie; hala nola, energia-eraginkortasunaren eta -efizientiaren igoera nabarmenari, deskarbonizazioari (energia berriztagarrien erabilera orokortuz) eta energia-autosufizientziaranzko bideari" (...).

Euskadiko 2030eko Energia Estrategiak ezartzen du honako helburu hauek bete behar direla 2030ean amaitzen den aldian: (...).

2. Energia berriztagarrien erabilera ehuneko 126 indartzea, azken kontsumoan berriztagarriek ehuneko 21eko kuota lor dezaten. (...).

5. Kogenerazioak eta berriztagarriek elektrizitatea sortzeko duten parte-hartzea igotzea, 2015ean ehuneko 20koa izatetik 2030ean ehuneko 40koa izatera pasatzeko. (...).

Hortaz, energia-efizientzia eta energia berriztagarriak dira Euskadiko energia strategiaren bi ardatz nagusiak, eta ezinbesteko betekizunak dira lurralde-iraunkortasuna, lehiakortasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka bermatzeko (...).

Estatuan, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legea lotuta dago arlo horretako EBren helburuekin eta Itun Berdearen hazkunde-estrategiarekin. Hala, erabaki hau nabarmentzen da: "klima-aldaketaren aurkako borroka eta energia-trantsizioa ekintza politikoaren erdigunean jartzea, etorkizuna eraikitze eta ekonomia- eta gizarte-aukera berriak sortzeko, ekonomiaren eta gizartearen giltzarri gisa. (...) legeak ziurtatu egin behar du 2050a baino lehenago berotegi-efektuko gas-emisioen neutraltasuna lortzea Espainian, baita energia-sistema efiziente eta berriztagarri bat ere (...)."

Zehazki, 3. artikuluan ezartzen dira "2030erako nazio-mailako gutxienezko helburuak, nazio-artean hartutako konpromisoak betetzeko, autonomia-erkidegoen eskumenak gorabehera:

a) 2030erako, Espainiako ekonomia osoko berotegi-efektuko gas-emisioak gutxienez ehuneko 23 murriztea, 1990ekoekin alderatuta.

b) 2030ean, jatorri berriztagarriko energien kuota azken energia-konsumoan gutxienez ehuneko 42koa izatea.

c) 2030ean, sistema elektrikoan jatorri berriztagarriko energien sorkuntza gutxienez ehuneko 74koa izatea. (...).

2. 2050a baino lehenago (edonola ere, ahalik eta epe laburrenean), Espainiak klima-neutraltasuna erdietsi beharko du, (...) eta sistema elektrikoak jatorri berriztagarriko sorkuntza-iturrietan soilik oinarrituta egon beharko du. (...)."

Era berean, eguzki-energia fotovoltaikoan oinarritutako energia berriztagarria sortzeko instalazioak aurreikusita daude Energia eta Klimaren 2021-2030eko Plan Nazional Integratuan, zeina Ministro Kontseiluaren 2021eko martxoaren 16ko erabakiaren bidez onetsi baitzen. Auzitegi Gorenaren ustez, plana "administrazio-plangintzarako tresna loteslea da, eta, hortaz, azaldu-tako terminoetan, xedapen orokorra da" (Auzitegi Gorenaren uztailearen 18ko 3410/2023 Epaia-aren bosgarren oinarri juridikoa, ECLI: ES:TS:2023:3410). 3.1.1 puntuak, energia berriztagarriak sustatzeko neurriei buruzkoak, honako hau zehazten du: "Deskarbonizazio-helburuak lortzeko, energia berriztagarriak asko garatu behar dira oro har, eta, zehazki, sektore elektrikoan; halaber, eskariaren zati handi bat elektrifikatu behar da. Ondoren proposatzen diren neurriekin, espero da energia berriztagarriak 2030ean azken energia-eskariaren ehuneko 42 izango direla, eta ekoizpenaren ehuneko 74 sistema elektrikoan. (...)."

Jarduera bat landa-lurzoruan koka dadin, nahitaez arrazoitu behar da landa-ingurunean kokatu behar dela. Jarduerearen izaera dela-eta, kokapen zehatz horretan finkatu behar da, tokia bat datorrelako beharrezko azpiegituren berezko ezaugarriekin.

Bosgarrena. Lurralde-antolamenduko indarreko tresnak

Plan bereziaren dokumentu teknikoak, 6. eta 7. ataletan, zehatz-mehatz azaltzen du nola betetzen dituen planaren lurralde-eremuari eragiten dioten lurralde-antolamenduko indarreko plan guztiak. Bestetik, askotariko baldintzatzaile gainjarri sektorial guztiak aipatzen dira, berariaz, bai memorian, bai araudietan eta planoetan. Amaitzeko, prozesuan zehar sortutako baldintzatzaile sektorial guztien taula argigarri bat jasotzen du dokumentu teknikoak, adieraziz zer organo eta/edo administrazioetatik datozen baldintzak, nolakoak diren eta nola sartu diren amaierako dokumentu teknikorako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Arabako Hirigintza Antolamendurako Atalaren 4/2022 bileran, aldeko txostena eman zitzaion "Armiñongo Lurzoru Urbanizaezinean Ekienea parke fotovoltaikoa ezartzeko plan bereziari" eta LAGEi eta EAEko ibaiak eta errekek antolatze LPSari buruzko lau baldintza puntual erantsi ziren. Halaber, nekazaritza-arloan eskuduna den foru-organismoak nahitaezko txostena eman behar zuela adierazi zen, bat etorri Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 97. bis artikularekin eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legearen 16.2 artikularekin.

Hortaz, aurkeztutako plan bereziak bete egiten ditu lurralde-antolamenduko indarreko tresnak. Egiatzatu dugunez, 2023ko maiatzean behin betiko onetsi zezaten aurkeztutako dokumentuak barruan biltzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ezarritako baldintzak, baita ingurumen-adierazpen estrategikoan eta plan berezia izapidetu bitartean idatzitako txosten sektorialetan sortutako aldaketa guztiak ere.

Seigarrena. Izapidetzen ari diren lurralde-antolamenduko tresnak

Euskadiko energia berriztagarrien lurralde plan sektoriala, hasiera batean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren bidez onetsi zen, eta 2023ko maiatzaren 10eko EHAA-n argitaratu.

Araba Erdialdeko lurralde plan partziala, hasiera batean, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioko sailburuaren 2023ko irailaren 4ko Aginduaren bidez onetsi zen. Agindua EHAA-n (182 zk.) eta ALHAOn (112. zk.) argitaratu zen, 2023ko irailaren 22an bietan.

Plan berezia ebazteko, aintzat hartu behar dira behin betiko onespeneren unean indarrean ziren lurralde- eta hirigintza-antolamenduko aurreikuspenak, eta inoiz ez etorkizunera begirako lurralde-antolamenduko tresnak, hasierako onespenera emateko erabakiek ez dakartelako hirigintza-antolamenduko tresnak izapidetu eta onesteko prozedurak bertan behera geratzea.

Zazpigarrena. Arabako Foru Aldundiaren (AFA) Nekazaritza Sailaren txosten loteslea eta Nekazaritzako eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala (LPS)

Plan bereziaren eremuaren barruan, azaleraren zati handi bat (86 hektarea) balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzoru gisa dago identifikatuta nekazaritzako eta basogintzako lurralde plan sektorialean, eta, kasu honetan, zehaztutako loteslea da hori udal-plangintza orokorrerako.

Armiñongo hirigintza-antolamendua, baina, oso zaharra da, 1999koa, eta ez dago Nekazaritzako eta basogintzako lurralde plan sektorialeko aplikazio-arauek egokituta (irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onetsi zuten, behin betiko, LPS hori). Hortaz, Armiñongo arau subsidiarioek, zonifikazio orokorrean, ez dute jasotzen balio estrategiko handiko nekazaritza-eremuaren kalifikazioa. Armiñongo Udalak hiri antolamendurako plan orokor berria idazten duenean, LAGetara eta nekazaritzako eta basogintzako lurralde plan sektorialera egokituko du lurzoru urbanizaezinen zonifikazioa.

Nekazaritzako eta basogintzako lurralde planak, erabileren matrizean, parke fotovoltaikoaren erabilera berdintsuetarako, erabileren eta jardueren kalifikazioa erregulatzen du, honako hau ezarritik:

2a Onargarria: Nekazaritza- eta basogintza-jardueri eragindako erasana aztertuko da, eta neurri zuzentzaileak hartuko dira, sektore-eragina ebaluatzeko protokoloan (SEEP) jasotako baldintzetan (Nekazaritzako eta Basogintzako LPSaren I. eranskineko D dokumentua, «Jarduketa-tresnak»).

Zehazki, Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzorurako, parke fotovoltaikoaren erabilerak barruan har ditzaketen erabileretan, parke fotovoltaikoaren erabilerak onargarritzat jotzen dira matrizean, betiere nekazaritza-arloan eskuduna den foru-organoak aldeko txostena ematen badu. Bestalde, 61. artikulua erabilerak eta jarduerak erregulatzen ditu, erregulazioaren xedeetarako, eta ezartzen du erabilera hori onargarria izan ahalko dela, baldin eta nekazaritza-jarduerari eragindako erasana aztertzen bada eta neurri zuzentzaileak SEEP protokoloan jasotzen diren baldintzetan ezartzen badira (Nekazaritzako eta Basogintzako LPSaren I. eranskineko D dokumentua, «Jarduketa-tresnak»).

Inguruabar hori aintzat hartuta, plan bereziaren eremuaren erdia baino gehiago balio estrategiko handiko nekazaritza-lurzorua denez, kasu honetan are garrantzitsuagoa da nekazaritza-arloan eskuduna den foru-organoak nahitaezko txostena ematea eta, jakina, txostenak adieraztea parke fotovoltaikoaren erabilera bateragarria dela.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 97. bis artikulua eta Nekazaritza eta Elikagiegintza Politikari buruzko 17/2008 Legearen 16.2 artikulua betetzeko, Nekazaritza Sailak aldeko txostena eman zuen 2023ko apirilaren 13an, adieraziz nekazaritza-lurzoruaren itzulgarritasun-baldintza sartu behar zela plan berezira.

“Proposamena, 150 hektareako eta 3,75 nekazaritza-lan unitateko ustiategi estentsiboa izatetik, askoz ere ustiategi intentsiboagoa izatera pasa da, 14,64 hektarea eta 10,85 nekazaritza-lan unitatekoa baita; hortaz, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusteko helburua lortu du (are, hobetu ere egin du), lursailean ustiapen fotovoltaikoak iraun bitartean lurzoru-galera konpentsatzeko.”

Txostenari, halaber, “Ekieneako parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapena dibertsifikatzeko proposamena” erantsi zaio, 2023ko martxoaren 6koa, 819.880,00 euroko inbertsioa aurreikusita.

Plan bereziaren bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlanak 94.750.000,00 euroko inbertsioa aurreikusten du guztira, 25 urteko bizitza baliagarriko. Nekazaritza Sailaren aldeko txostena lotuta dagoenez “Ekieneako parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapena dibertsifikatzeko proposamenarekin”, zeinak 819.880,00 euroko inbertsioa aurreikusten baitu, balioetsi behar dugu proposamena memoriara sartuta dagoela, eranskin gisara, eta plan bereziaren azterlan ekonomiko-finantzarioaren zati dela; beraz, dokumentu teknikoaren parte da.

Kontuan hartuta nekazaritza-lursailak 25 urtera itzulgarriak izango direla eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezarriko dela, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak aldeko txostena eman du: onargarritzat jo du Ekienea parke fotovoltaikoaren erasana, betiere eragindako lurzatian nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusten bazaio.

Horrenbestez, plan bereziak egoki justifikatu du eguzki-parkearen erasana onargarria dela, eta nahikoa egiaztatu da hori plan bereziaren memorian nahiz Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren txostenean.

Zortzigarrena. Sei alegazio aurkeztu dira, hasierako onespina eman ondoren jendaurrean jartzeko izapidean. Sustatzaileak eta udal-arkitektoak alegazioei buruzko txostenak eman zituzten, eta udalak, 2022ko apirilaren 1eko bilkuran, alegazioak ezestea erabaki zuen.

Bat gatz sustatzaileak eta udal-arkitektoak emandako txostenetan jasotzen diren eta alegazioak ebazteko oinarri modura erabili diren argudioekin.

Hala, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera dagozkidan ahalak baliatuz, foru-dekretu horretan zehazten baitira Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027ko legegintzaldirako sailak, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onspina ematea Lacorzanako (Armiñón) Ekienea parke fotovoltaikoaren plan bereziari.

Bigarrena. Plan berezia Arabako hirigintza plangintzako administrazio erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintzako araudiarekin eta ingurumen-azterketarekin batera.

Laugarrena. Ebazpen hau jakinaraztea Armiñongo Udalari, Ekienea SLri, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari (Araba Erdialdeko Lurralde Plan Partziala (LPP) izapidetzen ari baita) eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari (Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala (LPS) izapidetzen ari baita).

Bosgarrena. Ebazpen honek amaiera jartzen dio administrazio-bideari; beraz, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da zuzenean, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erki-degoko Justizia Auzitegi Nagusiaren aipatutako jurisdikzioaren salan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 3a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua
ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA

2024ko urtarrilaren 8a, Arabako hirigintza planeamenduaren administrazio erregistroan inskribatu zen Lacorzanako Ekienea parke fotovoltaikoaren plan berezia, 2024/1 erregistro-zen-bakiarekin.

HIRIGINTZAKO GARAPEN-ARAUDIA

Lacorzanako (Armiñón, Araba) Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia

AURKIBIDEA

LEHENGO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

- artikulua. Xedea eta ezarpen-eremua
- artikulua. Indarrean jartzea eta indarrean irauteko baldintzak
- artikulua. Plan Berezia eratzen duten agiriak eta agiri horien arauzko irismena

BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ARAUBIDEA

- kapitulua. Lurzoruaren kalifikazio xehakatuaren araubidea
- artikulua. Kalifikazio-araubide aplikagarriaren definizioa
- artikulua. Zonifikazio-kodea
- artikulua. Akuiferoak babesteko eremua (2. zona)
- artikulua. Baso-eremua eta lehengoratzeko eremua (4. zona)
- artikulua. Erabilera mugatuko nekazaritza-eremua (5. zona)
- artikulua. Nekazaritza-eremua (6. zona)
- artikulua. Kultura-intereseko ondasun higiezinak babesteko eremua (8. zona)
- artikulua. Bide-komunikazioak babesteko eremua (9. zona)
- artikulua. Ur-ibilguak eta -masak babesteko eremua (10. zona)
- kapitulua. Plana betearazteko araubidea
- artikulua. Plan Berezia betearazteko araubidea
- artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak eta instalazioak
- artikulua. Partzelazioa

HIRUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

- Kapitulua. Legedi sektorialaren ondorioz gainjarritako baldintzatzailleak
- artikulua. Ibilguen polizia-eremuko jarduketak
- artikulua. Uholde-arriskuko eremuetako erabileren mugaketak
- artikulua. Ibilguarekiko harremana
- artikulua. AP-68 autobideak eta A-4157 errepideak eragindako zortasunak
- artikulua. Landa-bideek eragindako zortasunak eta nekazaritza-bideetarako baldintzak
- artikulua. Santiago bideak eragindako zortasunak
- artikulua. Linea elektrikoek eragindako zortasunak
- artikulua. Miranda-Zaragoza-Iruña oliobideak eragindako zortasunak
- artikulua. Zortasun aeronautikoak
- kapitulua. Ingurumen- eta kultura-arloko baldintzatzaille gainjarriak
- artikulua. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta
- artikulua. Ingurumen-zaintza
- artikulua. Azpiegitura berdea

- 28. artikulua. Biodibertsitatearen tratamendua
- 29. artikulua. Babes bereziko antolamendu-kategorian sartuta dauden lursailetatik igarotzen diren linea elektrikoetarako neurri osagarriak
- 30. artikulua. Ustezko zona arkeologikoak
- 31. artikulua. Lurzoru kutsatuak
- 32. artikulua. Gainazaleko urei egiten zaien erasana
- 33. artikulua. Lurzorua jatorrizko egoerara itzultzea

LAUGARREN TITULUA: EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN
ERABILEREN, ERAIKINEN ETA HIRIGINTZAREN ERREGULAZIOA

- 1. kapitulua Erabilera-baldintzak
- 34. artikulua Erabilera-baldintza orokorrak
- 35. artikulua Erabilera-baldintza bereziak
- 36. artikulua Interes publikoaren adierazpena
- 2. kapitulua Eraikinaren eta instalazioen ezaugarriak
- 37. artikulua Eraikinaren baldintzak
- 38. artikulua Instalazioen baldintzak
- 3. kapitulua Baldintza estetikoak eta apaingarriak
- 39. artikulua Eraikinik eta instalaziorik ez duten eremu pribatuen tratamendua
- 40. artikulua Lurzatiaren itxitura
- 4. kapitulua Urbanizazioaren baldintzak eta zerbitzuen azpiegiturak
- 41. artikulua Lur-mugimendua
- 42. artikulua Lurzatiaren barrualdeko urbanizazioa
- 43. artikulua Aparkalekuak
- 44. artikulua Saneamendua
- 45. artikulua Errepide Zerbitzuaren txostenaren ondoriozko baldintzatzaileak

LEHENENGO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta ezarpen-eremua
Hirigintza-arau hauen helburua da Lacorzanako Parke Fotovoltaikoaren Plan Bereziak mugatzen duen eremuko lursailen, eraikinen eta instalazioen erabilera arautzea, eta Plana behin betiko onesten den unean jarriko dira indarrean, eremu osorako (Arabako Armiñón udalerriko lurzoru urbanizaezin bat hartzen du Planak).

2. artikulua. Indarrean jartzea eta indarrean irauteko baldintzak

- Plan Berezia indarrean jarriko da, Plana behin betiko onartzeko erabakia eta bere hirigintza-arauak Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da, harik eta haren zehaztapenak erabat edo zati batean aldatzen diren arte, legez ezarritako betekizunekin, edo erabat indargabetzen diren arte, halaxe ezartzen duen goragoko mailako plangintza-tresna bat onartuz gero.
- Plan Bereziaren xedapenen bat baliogabetzeak, ezeztatzeak edo aldatzeak ez du gainerakoak baliozkotasunean eraginik izango, lotura- edo menpekotasun-inguruabarraren ondorioz baten bat aplikatu behar ez den kasuetan izan ezik.

3. artikulua. Plan Berezia eratzen duten agiriak eta agiri horien arauzko irismena

- Plan berezi honek dokumentu hauek biltzen ditu:

A DOKUMENTUA. MEMORIA ETA ERANSKINAK
B DOKUMENTUA. HIRIGINTZAKO GARAPEN-ARAUDIA
C DOKUMENTUA. GAUZAPENA ANTOLATU ETA KUDEATZEKO GIDALERROAK
D DOKUMENTUA. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA
E DOKUMENTUA. EGIKARITZE-LABURPENA
F DOKUMENTUA. PLANOAK
G DOKUMENTUA. AZTERLAN HIDRAULIKOA
H DOKUMENTUA. INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOA ETA ERANSKINAK

Plan berezi honen arauzko edukia berori osatzen duten dokumentuen multzoak definitzen badu ere, antolamendu-planoek (F dokumentua), hirigintza-arau hauek eta gauzapena antolatu eta kudeatzeko gidalerroek betetzen dute hirigintza-jarduera arautzeko berariazko eginkizuna, eta, beraz, hirigintza-jarduera nahitaez egokitu beharko da haien zehaztapenetara.

Gainerako dokumentuak informazioa edo azalpenak emateko dira. Beraz, aurretik aipatutakoekin alderatuta kontraesanik egonez gero, aurrekoek izango dute lehentasuna.

Era berean, hirigintzako zehaztapenen baten definizioan eskala desberdinetako planoak bat ez badatoz, eskala zehatzagoan egindako planoetan ezarritakoa lehenetsiko da.

Hirigintza-araudiaren euskarazko bertsioak jatorrizkoarekin bat egiten ez badu, jatorrizkoa (gaztelaniazkoa) lehenetsiko da.

- Hirigintza-arau hauetan jasotzen ez diren antolamendu orokorreko kasuetan, Armiñongo hirigintza-antolamenduko arau subsidiarioak izango dira agiri arautzaileak.

BIGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ARAUBIDEA

1. kapitulua. Lurzoruaren kalifikazio xehakatuaren araubidea

4. artikulua. Kalifikazio-araubide aplikagarriaren definizioa

Dokumentu honen 01.AP planoan (Zonifikazio xehakaturia) jasotzen den kalifikazio-araubidea gailenduko da plan berezi honen eremuan. Kalifikazio-araubide horretan, Armiñongo arau subsidiarioetan jasotakoa islatzen da; hala ere, azterketa xeheago eta eskala askoz ere zehatzago bati esker, egokitzapen batzuk egin zaizkio, eremuaren gaur egungo errealitatearekin bat egin dezan.

5. artikulua. Zonifikazio-kodea

Plan Bereziaren eremuko zonifikazio xehakaturia bat dator Armiñongo arau subsidiarioen zona-banaketaarekin:

1. Akuiferoak babesteko eremua (2. zona).
2. Baso-eremua eta lehengoratzeko eremua (4. zona).
3. Erabilera mugatuko nekazaritza-eremua (5. zona).
4. Nekazaritza-eremua (6. zona).
5. Ondasun higiezinak babesteko eremua (8. zona).
6. Bide-komunikazioak babesteko eremua (9. zona).
7. Ur-ibilguak eta -masak babesteko eremua (10. zona).

6. artikulua. Akuiferoak babesteko eremua (2. zona)

1. Mugaketa: Infiltrazio-ahalmen handiko lurzorua dauzkaten nekazaritza-lursailek osatzen dute.
2. Jabaria: Pribatua.
3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak:
 - Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak, parke fotovoltaikoari lotuak eta/edo parkearekin bateragarriak.
 - Nekazaritzako, basogintzako eta/edo abeltzaintzako erabilerak.
4. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak:
 - Parke fotovoltaikora lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak.
 - Merkataritzakoak ez diren biltegiak eta zuloak eta nekazaritza-erabilerara lotutako eraikin osagarriak.
 - Berotegiak eta mintegiak.
5. Debekatutako erabilerak: Parke fotovoltaikoarekin bateragarria ez den edozein erabilera.

7. artikulua. Baso-eremua eta lehengoratzeko eremua (4. zona)

1. Mugaketa: Baso-lurzorua edo baso bihur daitekeena da. Baldintza litologiko espezifikorik ez duenez, eraikuntzako operazioek eta erabilerak honako muga hauek baino ez daukate: basoak zaindu eta hobetzeko printzipio logikoak eta Armiñongo arau subsidiarioek nahiz sektoreko legedi aplikagarriak adierazten dituzten printzipioak.
2. Jabaria: Pribatua.
3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak:
 - Lurraren edo lurpearen, zuhaitzen, faunaren eta floraren gaineko ekintzak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
 - Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak, parke fotovoltaikoari lotuak eta/edo parkearekin bateragarriak.
 - Baso-erabilerak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
4. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak:
 - Parke fotovoltaikora lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak.
5. Debekatutako erabilerak: Parke fotovoltaikoarekin bateragarria ez den edozein erabilera.

8. artikulua. Erabilera mugatuko nekazaritza-eremua (5. zona)

1. Mugaketa: Nekazaritza-lurzoria da, baina, lursail malkartsuan (% 12tik % 20ra) egoteagatik, eraikuntzako ekintzak eta erabilerak mugatuko dira; zehatz-mehatz esanda, Armiñongo arau subsidiarioek eta sektoreko legedi aplikagarriak adierazitakoak.
 2. Jabaria: Pribatua.
 3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak:
 - Lurraren edo lurpearen, zuhaitzien, faunaren eta floraren gaineko ekintzak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
 - Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak, parke fotovoltaikoari lotuak eta/edo parkearekin bateragarriak.
 - Nekazaritzako, basogintzako eta/edo abeltzaintzako erabilerak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
 - Jolas-eremuak, betiere parke fotovoltaikoarekin eta fasekako gauzapenarekin bateragarriak badira.
 4. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak
 - Parke fotovoltaikora lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak.
 5. Debebatutako erabilerak: Parke fotovoltaikoarekin bateragarria ez den edozein erabilera.
9. artikulua. Nekazaritza-eremua (6. zona)
1. Mugaketa: Nekazaritza-lurzoria da, eta % 12tik beherako aldapak dauzka, baita baldintza litologiko bereziak ere; beraz, ez dago muga berezirik eraikuntza-jardueretarako edo -erabileretarako; hau da, muga bakarrak nekazaritza-ustiapenaren printzipio logikoak dira, eta, zehazki, arautan eta aplikatu beharreko legedi sektorialean aipatzen direnak.
 2. Jabaria: Pribatua.
 3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak:
 - Lurraren edo lurpearen, zuhaitzien, faunaren eta floraren gaineko ekintzak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
 - Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak, parke fotovoltaikoari lotuak eta/edo parkearekin bateragarriak.
 - Nekazaritzako, basogintzako eta/edo abeltzaintzako erabilerak, parke fotovoltaikoarekin bateragarriak.
 - Jolas-eremuak, betiere parke fotovoltaikoarekin eta fasekako gauzapenarekin bateragarriak badira.
 4. Eraikuntzakoak diren erabilera eta jarduerak
 - Parke fotovoltaikora lotutako eraikinak, instalazioak eta azpiegiturak.
 5. Debebatutako erabilerak: Parke fotovoltaikoarekin bateragarria ez den edozein erabilera.
10. artikulua. Kultura-intereseko ondasun higiezinak babesteko eremua (8. zona)
1. Mugaketa: 100 metroko zabalera edo erradioa duten lur-eraztunak edo -zirkuluak dira, hirigunetik kanpoko arkeologia-aztarnategien eta kultura-interesekotzat katalogatutako beste ondasun batzuen ingurukoak edo horiek erdigune dituztenak. Zona hau Plan Bereziaren eremuan dago, Lacorzanako landagunearrekiko jarraitutasuna bermatzeko; alabaina, parke fotovoltaikoaren erabileratik kanpo dago.
 2. Jabaria: Pribatua.
 3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak:
 - Gunearen osotasuna zaintzeko asmoz lurpean, lurpean, zuhaitzian, faunarengan eta landaredian egiten diren ekintzak.
 - Ikerketa eta zabalkunde zientifikoko eta ingurumenaren arloko hezkuntzako jarduerak.
 - Aisialdiko jarduerak eta mendi ibiliak.
 - Nekazaritzakoak.

4. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak:
 - Espazioa bera babesteko direnak.
 - Ikerketara, hezkuntzara eta kulturaren (arkeologia) zabalkundera bideratutako eraikinak eta instalazioak.

Debekatutako erabilerak: Ondasun higiezinaren babesarekin bateragarria ez den edozein erabilera.

11. artikulua. Bide-komunikazioak babesteko eremua (9. zona)

1. Mugaketa: AP-68 autobidearen eta A-4157 errepidearen jabari publikoko lursailak dira. Zona hau Plan Bereziaren eremuan dago, eremuaren lurralde-jarraitutasuna bermatzeko; alabaina, parke fotovoltaikoaren erabileratik kanpo dago.
2. Jabaria: Publikoa.
3. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak: Bide-komunikazioak, araudi sektorial honetan erregulatzen denarekin bat: Errepideei buruzko 37/2015 Legea eta Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko 20/1990 Foru Araua.
4. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak: Ez daude baimenduta, araudi sektorial honetan erregulatzen denarekin bat.
5. Debekatutako erabilerak: Bide-komunikazioekin bateraezina den edozein erabilera, legedi sektorialean ezarritakoaren arabera.

12. artikulua. Ur-ibilguak eta -masak babesteko eremua (10. zona)

1. Eremu honetan, ezin daitezke ezarri parke fotovoltaikoaren berezko erabilerak eta eraikuntzak, eta erabilerak eta jarduerak bat egingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoarekin. Zona hau Plan Bereziaren eremuan dago, eremuaren lurralde-jarraitutasuna bermatzeko; alabaina, parke fotovoltaikoaren erabileratik kanpo dago.
2. Mugaketa: Zadorra ibaiaren ibilguari dagokionez 25 metroko zabalera duen zerrenda. Armifongo arau subsidiarioek mugatzen dute eremu hau, eta 50 metroko babes-zerrendaren barruan dago; Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak galarazi egiten du lursail hori asaldatzea.
3. Jabaria: Pribatua.
4. Eraikuntzakoak ez diren erabilerak eta jarduerak: Ibilgua babesteko jarduerak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera baimendu daitezkeenak.
5. Eraikuntzakoak diren erabilerak eta jarduerak: Ibilguari dagokionez 50 metroko zerrenda batean, ezin daiteke lursail naturala asaldatu (eraikinak, edozein motatako instalazioak edo eraikuntzak, finkoak nahiz desmuntagarriak izan, lur-berdinketak eta -mugimenduak...), Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak Zadorra ibaiaren tarte horretarako ezarri moduan.
6. Debekatutako erabilerak: Legedi sektorialean ibilgua babesteko ezartzen diren irizpideekin bateraezina den edozein erabilera.

2. kapitulua Plana betearazteko araubidea

13. artikulua. Plan Berezia betearazteko araubidea

Plan Bereziak mugatzen duen eremuan proiektatutako antolamendua zuzenean betearaziko da, dagokion obra-lizentzia lortu ondoren.

14. artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak eta instalazioak

Antolamenduz kanpokatutako eraikinak eta instalazioak bat ez datorren edozein eraikuntza, instalazio edo erabilera.

15. artikulua. Partzelazioa

1. Hirigintza-partzelazioak edo bestelako partzelazioak debekatuta daude, eta legedi orokor aplikagarrian ezarritako irizpideen arabera lurzati-bereizketak eta -zatiketak bakarrik onartuko dira.
2. 82/1998 Foru Dekretuaren arabera, lehorreko lurren eta ureztatutako lurren 3 hektarea dira gutxieneko laborantza-unitatea Arabako Ibarretarako, eta Armiñón udalerria eskualde horretan dago.

HIRUGARREN TITULUA: HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

1. kapitulua Legedi sektorialaren ondorioz gainjarritako baldintzatzailleak

16. artikulua. Ibilguen polizia-eremuko jarduketak
Zadorraren ibaiertzetik 100 metrora (ibilguen polizia-eremuan) edozein jarduketa egiteko, arroen organismoak obra-baimena eman beharko du.

17. artikulua. Uholde-arriskuko eremuetako erabileren mugaketak

1. Plan Bereziarekin batera erantsitako azterlan hidraulikoak uholde-arriskuko eremuak zehazten ditu, xehe, askoz ere topografia xeheago batera egokitu baita URAk emandako eredu hidraulikoa; bada, azterlan hidraulikoa izango da erreferentzia uholde-arriskuari dagokionez.
2. Betelanak egin ahalko dira 500 urteko errepikatze-denbora duen uraldiaren eraginpeko eremuetan eta lehenasunezko fluxu-eremutik kanpo, bat etorrita azterlan hidraulikoarekin.
3. 100 urteko errepikatze-denbora duen uraldiak urpean har ditzakeen eremuetan, irizpide orokor modura, uholde-arriskuarekin bateragarriak diren erabilerak bakarrik finkatu ahalko dira. Hortaz, ez dira onartuko ez eraikuntzak eta urbanizazioak, ez ibilguarekin paralelo jarritako azpiegitura puntual edo linealak, ez lursailaren morfologia aldatzeko jarduketak (ibaia bideratzeko lanak, betelanak eta abar).

18. artikulua. Ibilguarekiko harremana

1. Plan Bereziaren eraginpeko eremuak muga egiten du Zadorra ibaiarekin, IV. maila hidraulikoa duen tarte batean, zeina landa-eremuko ibaiertza baita; beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren aldaketan ezarritako zehaztapenak bete beharko dira (449/2013 Dekretua).
2. Gutxienez, 50 metroko atzeratze-tartea utziko da ibilgu publikoaren mugapen-lerrotik.
3. Lursail naturala aldatzea dakarren edozein esku-hartzetan (eraikuntzak, edozein motatako instalazioak edo eraikinak, finkoak zein desmuntagarriak izan, lur-berdinketak eta -mugimenduak eta abar) aplikatuko dira atzeratze-tarte horiek, honako hauetan izan ezik: nekazaritzako eta basogintzako lanak, herrilanak edo azpiegituren instalazioak eta kultura-ondarea babesteko ekintzak (azken horiek behar bezala arazoituta).
4. Ez da trazadura asaldatu, estali edo artifizialki zuzenduko, egokitzen den agintaritzaren hidrauliko uholdeak prebenitzeko edo herrilanak egiteko abiatu ditzakeen esku-hartzeetan izan ezik.

19. artikulua. AP-68 autobideak eta A-4157 errepideak eragindako zortasunak
Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira AP-68 autobidearen eta A-4157 errepidearen babes-eremuetako erabilera-mugak (dokumentu honen memorian azaltzen dira), bat etorrita Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauarekin.

Halaber, aintzat hartuko dira azpiegituraren erakunde kudeatzaileak Plan Berezia izapidetu bitartean idatzitako txostenak.

Zortasunarekin bateragarria den neurrian, belar- eta zuhaixka-espezie autoktonoak landatu ahalko dira, eta, hala badagokio, baita hazkunde neurritsu edo txikiko zuhaitz-espezieak ere.

20. artikulua. Landa-bideek eragindako zortasunak eta nekazaritza-bideetarako baldintzak

1. Landa-bideak.

Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira landa-bideen babes-eremuetako erabilera-mugak (dokumentu honen memorian azaltzen dira), bat etorrira Arabako Lurralde Historikoko landa-bideak kontserbatu eta zaintzeari buruzko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauarekin. Halaber, aintzat hartuko dira azpiegituraren erakunde kudeatzaileak Plan Berezia izapidetu bitartean idatzitako txostenak.

2. Nekazaritza-bideak

Proiektuan sartuta dauden nahiz proiektutik kanpo dauden nekazaritza-lurzatieta daramaten bideen trazadura errespetatuko da.

Instalazioak jartzeko lanek bideari eragingo badiote, Nekazaritza Egituren eta Landa Azpiegituren Atalari (Nekazaritza Garapeneko Zerbitzua-Nekazaritza Zerbitzua-Arabako Foru Aldundia) kontsultak egitea proposatzen dugu, irtenbide tekniko egokiena bilatzeko. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuak txosten teknikoa eman beharko du jarduketa egin aurretik.

21. artikulua. Santiago bideak eragindako zortasunak

Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira urtarrilaren 10eko Dekretuak zortasun- eta erasan-eremuetarako ezartzen dituen erabilera-mugak. Dekretuak kultura-ondasun kalifikatu gisa sailkatzen du Santiago bidearen EAEko zatia, monumentu-multzoaren kategorian (dokumentu honen memorian azaltzen dira erabilera-mugak). Halaber, aintzat hartuko dira monumentu-multzoaren erakunde kudeatzaileak Plan Berezia izapidetu bitartean idatzitako txostenak.

22. artikulua. Linea elektrikoek eragindako zortasunak

Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira Espainiako Sare Elektrikoaren garraio elektriko lineak sortutako lineak sortutako nahiz eremutik igarotzen diren erdi-tentsioko lineak sortutako zortasunen ondoriozko erabilera-mugak (dokumentu honen memorian azaltzen dira), bat etorrira abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuarekin (1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektriko instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena). Halere, obrak baimentzen direnean, baldintzak hitzartu ahalko dira azpiegitura horren kudeatzailearekin.

Zortasunarekin bateragarria den neurrian, belar- eta zuhaixka-espezie autoktonoak landatu ahalko dira, eta, hala badagokio, baita hazkuntza neurritsu edo txikiko zuhaitz-espezieak ere.

23. artikulua. Miranda-Zaragoza-Iruña oliobideak eragindako zortasunak

Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira Miranda-Zaragoza-Iruña oliobideak ezarritako erabilera- eta jabari-mugak (dokumentu honen memorian azaltzen dira muga horiek). Apirilaren 15eko 664/1987 Errege Dekretuak onura publikokotzat jo zuen oliobidea, eta Energiaren Zuzendaritza Nagusiaren 1987ko uztailearen 24ko Ebazpenaren bidez baimendu zen instalatzea. Halere, obrak baimentzen direnean, baldintzak hitzartu ahalko dira azpiegitura horren kudeatzailearekin.

Zortasunarekin bateragarria den neurrian, belar- eta zuhaixka-espezie autoktonoak landatu ahalko dira, eta, hala badagokio, baita hazkuntza neurritsu edo txikiko zuhaitz-espezieak ere.

24. artikulua. Zortasun aeronautikoak

Plan berezi honen eremuko lurzoru guztiak Gasteizko aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoen zonen barruan daude. Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak antolatzen

planoan (04.AP), Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten azalaren maila-lerroak adierazten dira, eremuan eragiten dutenak, hain zuzen ere. Marra-lerroek, bada, eraikuntzek (haien elementu guztiak barne hartuta; hala nola, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipamenduak, igogailuen kutxak, kartelak, erremate apaingarriak eta abar) gainditu behar ez dituzten altuerak zehazten dituzte, itsas mailarekiko, baita lursail-aldaketan eta objektu finkoen (zutoinak, antenak, haize-sorgailuak, palak, kartelak eta abar) gehieneko altuerak ere, eta bideko galiboa. Eraikuntzako garabiek eta antzekoek ere ezingo dituzte altuera horiek gainditu. Eremuari, batez ere, ILS RWY 04 maniobraren amaierako hurbilketa-azalera eragiten dio. Lursailaren kotak eta zortasun aeronautikoen kotak kontuan hartuta, bien arteko gutxieneko tartea 272 metrokoa da gutxi gorabehera.

Eremu osoa zortasun aeronautikoen eraginpeko zonetan eta espazioetan dagoenez gero, AESA-Aire Segurutasunaren Estatuko Agentziaren aldeko erabakia beharko da zernahi eraikin, instalazio (zutoinak, antenak, haize-sorgailuak –palak barne–, eraikuntzarako beharrezko bitartekoak –garabiak eta antzekoak–) edo landaketa egiteko, 584/1972 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluekin bat etorritz (gaur egungo testua).

2. kapitulua Ingurumen- eta kultura-arloko baldintzatzaile gainjarriak

25. artikulua. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta

Plan Bereziaren ondoriozko erasan nagusiak identifikatu eta baloratu ondoren, erasanok mugatu, murriztu edo gutxiagotzeko prebentzio- eta zuzenketa-neurriak proposatuko ditugu.

Proiektuaren bizitza baliagarrian, hala egokitzen denean, nahitaez bete beharko dira prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahiz ingurumenari jarraipena egiteko neurriak.

Planaren ezaugarriak direla-eta, obretarako gomendioei eta jarduketei buruzkoak dira neurriok.

1. Plan Berezia garatzen duten proiektuetarako neurri orokorrak

Honako babes- eta zuzenketa-neurri orokor hauek guztiak aplikatuko dira:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Iraunkortasunerako Zerbitzuak emandako ingurumen-adierazpen estrategikoan adierazten diren neurri eta baldintzatzaile guztiak (X. eranskina).
- b) Plan Bereziaren antolamenduan, babes-banden zonifikazioa sartuko da, eremuko ingurumen-balio nagusien gainean, eta zona horietan ezingo da onartu plaka fotovoltaikoak eta horiekin lotutako beste azpiegitura batzuk instalatzea. Kartografian adierazitako atzeratze-tarteak (150 m, 100 m eta 40 m) eguzki-instalazioaren itxituretaraino edo hesietaraino ezartzen dira, eta plaka fotovoltaikoak hesitutako azalaren barruan geratuko dira; beraz, babestu behar diren ingurumen-elementuetatik metro batzuk harago daude plakak.
- c) Beharrezkotzat jotzen da 100 metroko babes-banda bat ezartzea, igarobide ekologiko gisa, Zadorra ibaiaren kontserbazio-bereziko eremuaren (KBE) ondoan, AP-68 autobidearen ekialdean, 10 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duen zona batean. Zona horretan, Ihuda ibaiaren KBEak bat egiten du Zadorrarekin, Zadorra ibaiaren KBEaren babes-eremu periferikoa hartzen baitu. Bereziki sentikorra den korapilo hidrológico horretan, ibaiertzeko landaredia indartzeko jarduketak egin beharko lirarteke, eta zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak landatu. Neurri horrek, hasiera batean, traba egiten zion uholde-arriskuko eremu horretan frutarbolak landatzeko planteamenduari, zeina “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapien dibertsifikatua ezartzeko proposamenean” jasotzen baitzen (ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskin gisa aurkeztu zen proposamen hori). Ondorioz, planteamendua berrikusi da, eta 100 metroko banda sartu da KBEaren babes-eremu periferikoa lehengoratzeko aldera, hasieran proposatutako frutarbolen landaketa bazter utzirik.

- d) Antolamenduan, bermatu egingo da 100 metroko igarobide ekologiko batek Zadorra ibaiaren KBEa eta Lacorzanako urmaela inguratzen duen 150 metroko babes-bufferra lotzea, “botila-leporik” sor ez dadin.
- e) Bestetik, 40 metroko zabalera izango duen igarobide bat eraikiko da, Lacorzanako urmaela eta eremuaren iparraldeko erkamezti-abariztia lotzeko. Horrek guztiak azpiegitura berde jarraitu bat eratuko du.
- f) Instalazio fotovoltaikoa eraikitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa (IE) idaztea. IEan, hegazti-faunari buruzko urteko azterlana eta lotutako eranskin guztiak jasoko dira. IEa idazten denean, kontuan hartuko da ordura arte faunari buruz egindako azterlan guztien emaitza, eta, hortaz, planteatzen diren neurriak askoz ere hobeto garatuta egongo dira, orain baino.
- g) Instalazio fotovoltaikoa eraikitzeko proiektuak ingurumena lehengoratzeko proiektu bat jasoko du, dokumentu honetan proposatutakoan oinarritua.
- h) Nekazaritza- eta abeltzaintza proiektua garatzea, Sustraiak enpresak idatzitako dokumentuan oinarrituta (ingurumen-azterketa estrategikoaren V. eranskina). Ukituko den azalera mugatuko da, baita Zadorra ibaiari eta haren KBEari, Lacorzanako urmaelari edota proiektutik kanpo dauden lursailei kalterik ez egiteko atzeratze-tarteak ere.
- i) Era berean, obretarako, makineria-parkerako eta landare-lurren pilaketetarako eremu espezifikoak mugatu beharko dira.

Edozein lur mugitu edo zuhaitzak moztu aurretik, administrazioek aldeko txostenak eman beharko dituzte, nahitaez.

Faunaren habitata eta landare-formazio autoktonoak babestuko dira.

- Egingako azterlan espezifikoaren arabera zuzenketa-neurri guztiak mugatu eta beteko dira.
- Inguruko landarediari ez zaio kalterik egingo, ez bada halabarrez moztu behar. Ahal den neurrian, lursail naturala eta erkamezti-orbanak zainduko dira.
- Eremuaren gainerako tokietan, inguruko landarediaren saileko espezie autoktonoak birlandatuko dira.
- Proiektuko eremua lorategi bihurtzean, arretaz jokatu da, prozesu inbaditzaileak sor ditzaketen espezie apaingarri aloktonorik ez sartzeko. Ihoberen eskuliburua kontuan hartuko da, lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeari buruzkoa.
- Obraren ingurumena kontrolatu eta zaintzeko, adituen diziplina anitzeko talde bat kontratatu beharko da inpaktuak prebenitu eta zuzentzeko neurriak zuzen aplikatzen direla kontrolatzeko. Obra Zuzendaritzarekin lankidetzan arituko dira beti, dokumentu honen atal honetan aipatutako alderdi guztiak kontrolatzeko.
- Obra-plan bat idatziko da, eta, bertan, proiektuaren faseak jasoko dira, ingurumen-arloko jarduera onen eskuliburu batekin batera, obrako langileek erabil dezaten. Planean, aintzat hartuko da zuzenean okupatzen ez diren azalera libreak birlandatu beharko direla.
- Eguzki-parke fotovoltaikoa eraikitzeko proiektuan, honako hauek zehaztu behar dira: lurzatiaren barruko urbanizazioaren ezaugarriak, panelen mantentze- eta garbiketa-lanak (maiztasuna, erabilitako produktuak, beharrezko ura, hondakinen kudeaketa etab.) eta energia husteko linea elektrikoa (instalazio fotovoltaikora konektatuko den 13,2 kV-ko linea elektrikora konektatzeko euskarriraino). Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren esparruan, alderdi horiek aztertuko dira.
- Honako leku hauetan, irizpide tekniko-ekonomikoak eta ekologia- zein paisaia-arloko alderdiak bateratu beharko dira: obrarako materialak biltzen diren tokietan, makineria-parkeetan, landare-lurren eta indusketen ondorioz sorturiko behin-behineko hondakinen biltegietan, instalazioetan eta eraikuntza-lanak egiteko beharrezkoak diren beste eraikin osagarri batzuetan. Horrela, eremu babestuetatik hurbil dauden tokiak eta eremu horietara doazen tokiak saihestuko dira. Kokaleku horiek, adierazitako irizpideen arabera, eraikuntza-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan zehaztu beharko dira.

- o Eremuko ingurumen-balio nagusien babes:

Faunari buruzko azterlan osagarrien ondorioetan oinarrituta, honako babes-banda hauek ezarriko dira ingurumena babesteko:

- o Lacorzanako urmaelaren mugetan, parkearen azalera baliagarria murriztu da, moteltze-eremua handitu delako. 150 metroko bufferra urmaelaren ertzetik.
- o Urmaela inguratzen duen banda (EAEko Hezeguneen LPSaren arabera, “Nekazaritzako eta abeltzaintzako eremua eta landazabala” da) panel fotovoltaikoen instalaziotik kanpo geratu da.
- o 100 metroko zabalera daukan igarobide ekologiko bat zehaztu da Lacorzako urmaelaren eta Zadorra ibaiaren KBEaren artean: Habitat naturalen (zuhaiak nahiz belarkiak) eremu bat sortuko da, Plan Bereziaren eremuan dauden azpiegitura berdearen bi elementuak (urmaela eta ibaia) erkidego-mailan lotzeko, bai Natura 2000 Sarearen osotasuna indartzeko, bai herpetofauna kontserbatzeko erreserba txikiak sortzeko, anfibioentzat eta narrastientzat onuragarriak izango diren habitat txikiak eratu daitezten. Zehazki, urmaelaren inguruan putzu sateliteak sortzea, harriak metatuz babeslekuak sortzea eta hareazko terrazak sortzea proposatzen dugu. Elharrir erantsiko zaion hirigintza-eta/edo eraikuntza-proiektuan, zehatz-mehatz zehaztuko dira lehengoratzeko-proposamena, putzuak eta babeslekuak.
- o Aipatutako azaleretan, ez da panel fotovoltaikorik jarriko: habitat natural bat birsortzeko erabiliko dira.
- o 40 metroko babes-banda sortuko da mendebaldeko muga, eremuaren iparraldeko abariztiarekiko loturari mesede egiteko.

2. Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabileren gaineko konpentsazio-neurriak:

Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerari eragindako kaltea arintzeko konpentsazio-neurri gisara, nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektu bat diseinatu da (ingurumen-azterketa estrategikoaren V. eranskina da). Sustraiak enpresak idatzi du proiektua, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua proposatzen du, honako erabilera hauei begirakoa:

- o Ardi-azienda sartzera
- o Frutarbolak landatzea (intentsiboan eta estentsiboan)
- o Baratze-eremu biintentsiboa (tunel anitzeko berotegietan eta aire zabalean)
- o Bazka-laborantzatarako lurzatiek

Ekieneak inbertsioak egin beharko ditu nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektua martxan jartzeko. Inbertsiook zehazteko, lankidetzak-hitzarmen bat sinatu beharko du Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin eta, hala egokitzen bada, baita beste agente batzuekin ere.

3. Eraikuntza- eta ustiapen-faseko neurriak

Zuzenketa- eta babes-neurriak honako informazio honen arabera aplikatuko dira:

- a) Lurzorua eta geomorfologia babestea:

Kontratuak lurzorua maneiatzeko programa bat izan beharko du, eta, hor, aldi baterako lur-pilaketetarako (landare-lurra) mugatutako eremuak zehaztu beharko dira, eta adierazi kabailoi bakoitzak ezin izango duela gaintu 2-1,5 metroko garaiera. Pilaketak obrek dagoeneko eragindako eremuetan edo landareak ez dauden eremuetan egin beharko dira.

Instalazio fotovoltaikoa jartzeko kenduko den landare-lurrari dagozkion lurzoru-horizonteak gaika kendu beharko dira, eta komeni da berehala birbanatzea edo toki egoki batean pilatzea. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzoetan egin behar da pilaketa. Obrak erasandako eremuetan landareak birlantatzeko eta lurra ordezkatzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare-lurra. Landare-lurra beste edozertarako erabiltzeko, ingurumen-organok baimena eman beharko du.

Ahalik eta gehien kontserbatu beharko da erasan daitekeen eremuaren gaur egungo geomorfologia edo topografia, eta plakak "hantura" bidez jartzen saiatu beharko da, indusketa gutxienekoa izan dadin eta urmaeleko isurketa-arroa murriztu ez dadin. Instalazio fotovoltaikoa jartzeko kenduko den landare-lurrari dagozkion lurzoru-horizonteak gaika kendu beharko dira, eta komeni da berehala birbanatzea edo pilatzea, eremuko ingurumena lehengoratzean berrerabiltzeko.

Lubakiak irekitzeko, barruko bideen kutzak irekitzeko eta dauden bideak hobetzeko, eraldaketa-zentroen zimenduetarako zuloak egiteko eta bestelakoetarako, landare-lurraren geruza eta arroka amaren geruza pila desberdinetan bereiziko dira. Lubakiak, tutuekin, eroanbideekin eta material osagarriekin bete ondoren, arroka amaren lurrekin bete beharko dira behean, eta landare-lurraren geruzarekin amaitu, trinko-trinko, ez dadin egon eremuak berezkoa ez duen erlieberik.

Obretan, kutsatuta egon daitekeen lurrik dagoen aztertu beharko da, eskudun ingurumen-agintaritzaren arabera kudeatzeko.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte (833/1988 Errege Dekretua, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena), eta itxita egongo dira baimendutako kudeatzaileari entregatu arte, isuri edo lurrundu ez daitezten.

Olio erabilia, berriz, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko da.

Lurzoruren bat kutsatuta egon daitekeelako susmorik sortzen bada, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 22.2 artikuluan ezarritakoa beteko da.

b) Gainazaleko/lurpeko hidrologiaren babesa:

Obra hasi aurretik, tokia miatu beharko da, iturburu handirik dagoen ikusi eta urak biltzeko.

Oro har, debekatuta dago ur kontinentalak edo jabari publiko hidraulikoari atxikitako beste edozein elementu kutsa ditzaketen urak eta hondakin-produktuak zuzenean nahiz zeharka isurtzea, aurretik baimen egokia eduki ezean.

Kontratuan, bermatu egingo da makineria-parkearen eta pilaketen eremuko lurzorua iragazgaitza izatea, eta jardun-protokolo bat eduki beharko da nahi gabeko isuririk gertatzen bada ere. Obren eremuan, gune garbi bat jarriko da.

Makineriaren doikuntzak, olio-aldaketak eta hormigoi-lanak erabilera horretarako gaitutako tokietan egingo dira. Iragazgaitza ez den lurzoru batera ezustean zerbait isurtzen denerako, sepiolita, diatomea-hareak edo hidrokarburoen edozein xurgatzaile egongo dira obran, kutsatzaileok xurgatzen laguntzeko.

Eremuko azterlan hidraulikoko zehaztapenak beteko dira.

Plan Berezian jasotzen diren atzeratze-tarteak beteko dira, Lacorzanako urmaela eta Zadorra eta Ihuda ibaiak babesteko.

Zadorra eta Ihuda ibaietako uren kalitatea kontrolatuko da, baita Lacorzanako urmaeleko urena ere. Honako parametro hauek aztertuko dira:

- PHa eta tenperatura (in situ neurtuko dira)

- Eroankortasuna (in situ neurtuko dira)
- Oxigenoa (mg/l)
- Oxigenoa (ehunekoa)

Urmaelaren eta Zadorra ibaiaren KBEaren inguruan babes-neurriak hartu beharko dira, plaka fotovoltaikoak instalatzeko lanak egiten diren bitartean hezegunean edo ibaian solido esekiak (lastozko fardelak, aldi baterako dekantazio-putzuak eta abar) jarriko ez direla bermatzeko. Neurri horien definizio zehatza instalazioaren eraikuntza-proiektuari dagokio, eta proiektuaren mailan inpaktua ebaluatzeko prozeduran aztertuko dira.

Landaredia metodo mekanikoekin kontrolatuko da, herbizidarik erabili gabe. Jarduera-eremuaren gehiengoa akuiferoen kalteberatasun handiko zona batean dagoenez, kontuan hartuko dira nekazaritza eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik urak babesteko arauak. Landaredi arrotza kontrolatzeko har daitezkeen neurrien artean, kontuan hartuko da eremukoazienda estentsiboak (batez ere, ardiek) larrean bertan jan dezakeela.

Honako leku hauetan, irizpide tekniko-ekonomikoak eta ekologia- zein paisaia-arloko alderdiak bateratu beharko dira: obrarako materialak biltzen diren tokietan, makineria-parkeetan, landare-lurren eta indusketen ondorioz sorturiko behin-behineko hondakinen biltegietan, instalazioetan eta eraikuntza-lanak egiteko beharrezkoak diren beste eraikin osagarri batzuetan. Horrela, eremu babestuetatik hurbil dauden tokiak eta eremu horietara doazen tokiak saihestuko dira. Kokaleku horiek, adierazitako irizpideen arabera, eraikuntza-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan zehaztu beharko dira.

c) Airearen kalitatearen babesa:

Obreran, marraztutako zonan, makineria eta ibilgailuak 20 km/h-ko abiaduran ibiliko dira gehienez ere. Egunez egingo da lan, 08:00etatik 20:00etara bitartean.

Kamioiek obran sartu eta irteteko erabiltzen dituzten bideak garbi eduki beharko dira, presiopeko ura edo erraztatzeko makina mekanikoak erabiliz. Gurpilak garbitzeko gailu bat jarriko da, horrelako kalteak saihesteko.

Obrako makinen homologazio-txartelak eta IAT txartelak berrikusiko dira, errektuzari, isuriei eta zarata-mailei dagokienez, isurien araudia betetzen dela egiaztatzeko.

Obrara irteteko bideak umelduko dira, garraioak bide horietatik igarotzen direnean solido esekien kopurua murriztu dadin.

Alboko landarediari eta atmosferari eragin diezaieketen partikula esekien kopurua handitzea saihesteko, landare-lurren pilaketak babestuta dauden eremuetan jarriko dira, eta, aldizka, lurak ureztatuko dira, partikulak sakabana ez daitezen, Obraren Ingurumen Zuzendaritzak egokitzat jotzen duen moduan edo eguraldia egokia denean.

d) Faunaren habitaten eta landare-formazio autoktonoen babesa:

Plan Berezian KBEa eta Lacorzanako urmaela babesteko jasotzen diren atzeratze-tarteak errespetatuko dira.

Parke fotovoltaikoa instalatzeko bakar-bakarrik kenduko da behar-beharrezkoa den landaredia, eta instalazioaren kanpoko ertzetan edo mugetan dagoen zuhaixka- eta zuhaitz-landarediari eutsiko zaio, energia ekoizteko jarduera nabarmen oztopatzen ez den eremuetan.

Igarobide ekologikoan hartu beharreko neurriez gain, ingurumena lehengoratzeko eta hobetzeko jarduketak aurreikusiko dira, Plan Bereziaren eremua zeharkatzen duten 220kV-ko goi-tentsioko linearen, oliobidearen eta bide-azpiegituren (AP-68 eta A-4157) zortasun-eremuetan. Hori guztia administrazio-organo eskudunek gune horietarako ezartzen dituzten gogoeta eta zehaztapenekin bat etorri. Horretarako, bertako belarra eta zuhaixkak erabili ahaliko dira (eta, hala badagokio,

hazkunde ertaineko edo txikiko zuhaitzak} birlandaketak egiteko, sektoreko organo horiek ezartzen dituzten baldintzekin bat etorriz. Jarduera horiek funtzionaltasun bikoitza izango dute, ekologikoa eta paisajistikoa. Izan ere, ingurumen-intereseko eremuen arteko konektagarritasuna indartzeaz gain, ikusmen-inpaktua murrizten lagunduko dute ikusleen kontzentrazio handieneko eremuetatik (bereziki, AP-68 autobidetik).

Igarobide ekologiko gisa ezarritako eremuetan, Lacorzanako urmaelaren eremuan eta Zadorra ibaiaren KBEaren ingurune hurbilean, IAEaren osagarri diren azterlan faunistikoetan jasotzen diren kudeaketa-proposamenei erantzungo zaie (VII. eranskina, Azterlan faunistiko osagarriak). Bereziki, honako hauei dagokienez: hegaztien, odonatuen eta herpetofaunaren jarraipenerako azterketak, uretako landarediaren jarraipena, hezeguneko espezie exotikoen kontrola, ezarritako igarobide ekologikoen ezarpena eta kudeaketa egokia, putzu sateliteen sorkuntza (azterlan herpetofaunistikoak zehaztutako eremuetan) eta herpetofaunarako babeslekuen sorkuntza. Azterlan faunistiko horiek egiten dituzten adituen irizpideen arabera definituko dira irtenbideak.

Aurreko puntuan ezarritako eremu horiek guztiak berdegune eta igarobide ekologiko gisa definituko dira Plan Bereziaren antolamenduan, eta xehetasunez zehaztu dira ingurumen-azterketa estrategiko honen VIII. eranskinean, habitat naturalak lehengoratzeko eta, era berean, ingurumenaren aldetik kalitatezkoak eta sentikorak diren eremuetan bizi diren basafaunako espezieen eskakizunei erantzuteko. Neurri horiek VIII. eranskinean jaso dira, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan, eta Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio, onets ditzan.

Perimetroko hesi iragazkorra jarriko da faunarako, hesi-efektua saihestuz eta ingurunean integratuz.

Proiektuan zehaztuko den hesi zinegetikoa "alderantziz" jarriko da, zulo handiak behean daudela. Oro har, gutxiago ikusten diren tokietan, "katazuloak" egingo dira perimetroko itxituren, 20 cm-ko diametrodunak gehienez ere, lurzoruan bertan aitzurrarekin zulatuta. Hona hemen ezaugarri orokorrak:

- Ehiza- edo abeltzaintza-hesiak, ahal dela 2 m baino baxuagoak.
- Tamaina txiki eta ertaineko faunarekiko iragazkorra den diseinua.
- "Katazulo" motako pasabideak.
- Hesia hegaztien talken aurkako gailuarekin seinaleztatzea.

Obretan, espezie batzuek (hala nola, mirotz zuriak eta zingira-mirotzak) habiak egiteko sasoiak errespetatuko dira. Habiarik dagoen zainduko da.

Eremuan egon daitezkeen espezieen ugalketa-aldiak eragozteko saihestuko da.
Talka- eta elektrokuzio-arriskua murrizteko neurriak hartuko dira.

Jarduketa-eremuaren barruan, herpetofauna zaintzeko erreserba txikiak jarriko dira, anfibioei eta narrastiei onura egingo dieten habitat txikiak sortuz. Zentzu horretan, Lacorzanako urmaelaren inguruan putzu sateliteak jartzea proposatzen dugu. Kokapena eta proposamena gutxi gorabeherakoak dira, egiten ari diren azterlan faunistikoen emaitzen zain.

Lurrak mugitzen hasi aurretik, faunaren azterketak egingo dira, mugikortasun gutxiko espezieak aurkitu, babestu eta, hala badagokio, kentzeko.

Espezie egokiak hautatuko dira berdeguneak birlandatzeko (geruza guztietan: belarkiak, zuhaixkak eta zuhaitzak); hots, espezie autoktonoak eta eremuko landaredi potentziala (ingurumena lehengoratzeari buruzko VIII. eranskina).

Inbaditzaileak izan daitezkeen landare-espezie aloktonoak kontrolatzeko neurriak hartuko dira. Prebentzio modura, ezingo da erabili obratik kanpo datorren lurrik, ingurumen-organoak berariazko baimena eman ezean.

Parke fotovoltaikoaren barruko eremuan landare-estalkiaren mantentze-lanak metodo mekanikoen bidez egingo dira, herbizidarik erabili gabe. Jarduera-eremuaren gehiengoa akuiferoen kalteberatasun handiko zona batean dagoenez, kontuan hartuko dira nekazaritzatik eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik urak babesteko arauak. Landaredi arrotza kontrolatzeko har daitezkeen neurrien artean, kontuan hartuko da eremukoazienda estentsiboak (batez ere, ardiek) larrean bertan jan dezakeela.

e) Kalitate akustikoaren babesa:

Indarreko legedian zaratei eta bibrazioei buruz ezartzen diren arauak beteko dira; besteak beste, honako hauek: 212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituen, eta 524/2006 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, 212/2002 Errege Dekretua aldatzen duena.

Bestetik, obren faseari dagokionez, bat etorrita Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoarekin, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, obra-fasean erabiltzeko makinek bete egin beharko dute aire zabalean erabiltzen diren makinen soinu-emisioei buruzko indarreko legeria eta, bereziki, aplikagarri zaienean, baita aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurunean egiten dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatu zuen) eta arau osagarrietan ezarritakoa bete ere.

Eraikuntza-fasean erabiltzen den makineria astunaren trafikoa planifikatu egin beharko da, gutxien eragozten duten ibilbideak eta bideak erabil daitezen sartu-irtenetan.

Halaber, Obra Zuzendaritzak aginduak eman beharko ditu, aurreikusitako jarduera-ordutegiak bete daitezzen.

f) Argi-kutsaduraren aurkako babesa:

Impaktu txikiko argiztapen-sistemak erabiliko dira. Eraikuntza-proiektuaren mailan definitu beharko dira, eta proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko prozeduraren esparruan aztertuko eta baloratuko dira.

Horri dagokionez, ingurumenaren aldetik oso hauskorak diren eremuen inguruetan, neurri bereziak hartuko dira. Berariazko zaintza-plan bat zehaztuko da, bai ezarritako argi-mailak gainditzen ez direla egiaztatzeko, bai, nolana ere, ingurunean eremu naturaletan bizi diren fauna-espeziei babestuei ondorio negatiborik ez eragiteko.

g) Kultura-ondarea babestea:

Aldez aurretik, balorazio-zundaketak egingo dira, eta, hondakin handiak agertuz gero, induskatu egin beharko dira; ondoren, obra guztien kontrol arkeologikoa egin beharko da. Esku hartu ondoren lursailen bat baloratu gabe geratzen bada, obrak kontrol arkeologikoaren pean egin beharko dira.

Azterlan arkeologikoan proposatzen diren neurri guztiak beteko dira. Zentzu horretan, ustezko zona arkeologikoen eta ondare-elementu katalogatuen balio nagusiak babesteko neurriak hartuko dira, bat etorrita VI. eranskinean (Esku-hartzeko arkeologikoko proiektua) zehazten diren irizpide eta zehaztapenekin eta, nolana ere, bat etorrita kultura-ondarearen arloan eskudunak diren organoek ezartzen dituzten irizpide eta zehaztapenekin. Hona hemen detektatutako elementuak:

- Santa Marina herrixka.
- San Martingo eliza eta nekropolia.
- Hurtado de Mendozatarren dorrea.
- La Higarrako txabola-hondoa.

- El Prado III-ko txabola-hondoa.
- El Prado II-ko txabola-hondoa.
- El Prado I-eko txabola-hondoa.
- La Calerako egonlekua.

Inguruko landa-bideetan edo alboko eremuetan (jabari publikoko eremuetan, zortasun-eremuetan, erasan-eremuetan eta eraikuntza-mugetan) jarduketaren bat egiteko, 1995eko otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan ezarritakoari heldu beharko zaio (6/1995 Foru Araua, 1995eko otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeari buruzkoa, 1995eko otsailaren 27ko ALHAO).

Lur-mugimenduak egitean material arkeologikorik edo aztarnategi ezezagunik detektatzen bada, Euskadiko Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren arabera jokatu da.

h) Paisaia babestea:

Landareak tratatzeko, oinarritzat hartuko da eraikuntza-proiektuaren ingurumena lehengoratzeko behin betiko azterlana.

Paisaiaren gaineko erasana murrizteko, eremua ondo mugatu beharko da, beste zona batzuei ez eragiteko.

Eremuan lorategiak jarri beharko dira, tratamendu hori onartzen duten tokietan. Instalazioaren tonu kromatikoek bat egin beharko dute inguruneke paisaiarekin eta inguruko ohiko eraikinekin.

i) Hondakin-sorkuntzaren eta -kudeaketaren aurrean babestea:

Obrak amaitutakoan, guztia garbituko da, soberako materialak eta obretan sortutako hondakin guztiak kendu eta kudeatzea bermatzearekin batera.

Obretan eta garbiketa-kanpainan sortzen diren hondakinak kudeatzeko, kontuan hartuko da Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta araudi espezifikoetan jasotakoa.

Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen kudeaketa arautzen duen uztailaren 26ko 112/2012 Dekretuan aurreikusitakoa betez kudeatuko dira eraikuntzako eta eraispeneko jardueren ondoriozko hondakinak.

Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak beteko dituzte (833/1988 Errege Dekretua, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duena), eta itxita egongo dira baimendutako kudeatzaileari entregatu arte, isuri edo lurrundu ez daitezten.

Olio erabilia, berriz, Industrian Erabilitako Olioaren Kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan Erabilitako Olioaren Kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1988 Dekretuan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

Kanpo-argiztapenari, trafikoari, irisgarritasunari, barruko zaratari eta lorezaintzari buruzko udal-ordenantzetan xedatutakoari helduko zaio.

j) Eraikin eta eraikuntza jasagarriak:

2020ko IV. Ingurumen Esparru Programan ezarritako lehentasunarekin bat (baliabideak erabiltzean bizi-ziklo osoan efizienteagoak izango diren eraikinak eta eraikuntza sustatzea,

bereziki eraikuntzaren amaieran hondakinak aprobetxatzeari dagokionez, 2017rako lehentasuna), aintzat hartu beharko dira Eraikuntza Iraunkorrerako Gidan jasotzen diren gomendioak, eraikinen energia-aurrezpena eta -efizientzia indartzeko eta energia berriztagarriak sustatzeko helburuz. Neurri horiek, gutxienez, honako alderdi hauetan eragin beharko dute:

- Materialak. Lehengai ez-berriztagarrien kontsumoa murriztea.
- Energia. Iturri ez-berriztagarrietatik datorren energiaren kontsumoa eta/edo sorkuntza murriztea.
- Edateko ura. Edateko uraren kontsumoa murriztea.
- Atmosfera. Gas, hauts, bero eta argi gutxiago isurtzea.
- Barne-kalitatea. Barneko airearen kalitatea, erosotasuna eta osasuna hobetzea.

26. artikulua. Ingurumen-zaintza

Plan Berezia gauzatzeko prozesuan, ingurumen-azterketa estrategikoan eta ingurumen-adierazpen estrategikoan jasotako ingurumen-zaintzako irizpideak bete beharko dira.

27. artikulua. Azpiegitura berdea

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) 4. artikulua betetzeko, Plan Berezia azpiegitura berde bat mugatzen du. Barruan, Lacorzanako urmaelaren eta Zadorra ibaiaren (KBE) inguruak daude, eta eremuotako ingurumen-balioak zaindu beharko dira.

Azpiegitura berdea inklusiboa, malgua eta estrategikoa da, helburu baitu lurraldeko konektagarritasun ekologikoa bermatzea, biodibertsitate-galera etetea eta giza egonlekuek nahiz azpiegitura grisek (errepideek, trenbideek eta beste azpiegitura lineal batzuek) eragindako lurralde-zatiketaren ondorioak arintzea, naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak indartze aldera.

28. artikulua. Biodibertsitatearen tratamendua

LAGak aplikatzeko arauen II. eranskinaren 1.a.2 apartatuan jasotzen diren gidalerroak bete beharko dira.

- a) Biodibertsitateak bizirik jarraitzea bermatzea; hau da, «edozein iturritako organismo bizidunen aldakortasuna» ziurtatu behar da, «besteak beste, lehorreko eta itsasoko ekosistemetakoa eta organismo horiek bizi diren bestelako ur-ekosistema eta esparru ekologikoetakoena, espezie bakoitzaren barruko, espezieen arteko eta ekosistemen dibertsitate kontuan hartuz» (Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, 1992).
- b) Endemismoak lehentasunez babestea (endemismoak konbinazio genetikoak dira; batzuetan, toki geografiko murriz batean bakarrik bizi diren espezieak izaten dira, eta, beste batzuetan, eremu zabaleko espezieen tokiko aldaerak izaten dira). Horretarako, lurraldean garatutako erabilerei esker zaindu diren eta biztanle gehienentzat erreferente ekologiko eta kultural bihurtu diren balio bereziko natura-inguruneak antolatzeke ildoekin jarraitu behar da.
- c) EAE osoko habitatak, espezieak eta banako bereziak babesteko zabaldu behar da ildo hori. Halaber, habitatak elkarri lotzeko igarobide ekologikoak zaindu eta lehengoratu behar dira, truke genetiko berma dadin. Eskala guztietara hedatuko da irizpide hori, azpiegitura interkonektatu berde bat osatzeko.
- d) Lurraldeko ekintza orotan, landaredia (bereziki, zuhaitz-masak) zainduko dela ziurtatuko da. Konektagarritasun ekologikoa lehengoratzeko neurriak hartuko dira konektagarritasun hori galdu duten tokietan, eta zuzenketa- edo konpentsazio-neurriak hartuko dira konektagarritasun ekologikoa galduko dela aurreikusten den tokietan. Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak babestu eta zainduko dira.
- e) Ez da sortuko faunari aske ibiltzea galaraziko dion oztopo artifizialik, eta, halakorik badago, zirkulazio horri bide emateko neurriak aztertu eta ezarriko dira.
- f) Goi-tentsioko linea elektrikoetan, hegaztiak ez elektrokatutzeko eta talka ez egiteko gailuak jarri beharko dira, bat etorrita Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduarekin; izan ere, agindu horren bidez, arriskupean dauden

hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira, eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira.

29. artikulua. Babes bereziko antolamendu-kategorian sartuta dauden lursailetatik igarotzen diren linea elektrikoetarako neurri osagarriak

LAGen 16.7 artikulua ezartzen duenez, manu tekniko osagarriak aplikatuko dira babes bereziko antolamendu-kategorian sartuta dauden lursailetatik igarotzen diren linea elektrikoetarako; bereziki, honako hauek:

- a) Eremu menditsuetan edo erliebe malkartsua dutenetan, oro har, ez da jarriko edozein puntutatik begiratuta paisaiaren itxura bisualak gaindituko dituen euskarririk aireko lineetarako.
- b) Orokorrean, instalazioen ibilbideak erliebeko kota topografikoei jarraituko die, eta lursailaren geomorfologiara egokituko da.
- c) Ahal dela, dagoeneko badauden komunikazio-bideekin (errepideak, trenbideak...) paralelo jarriko dira, bideotatik hurbil, eta ez da trazadura berririk egingo lurraldean.
- d) Hurbil linearik badago, linea horiek erabiliko dira, berriak eraiki ordez.
- e) Euskarriak diseinatzean, paisaia-inpaktua murrizteko irizpideak aplikatuko dira, faktore erabakigarri modura: euskarriak lursailera egokituko dira, lur-berdinketak edo -mugimenduak egiteko premia murriztu dadin.
- f) Natura babesteko edozein figuratan sartuta dauden eremuetatik edo igarobide ekologikoetatik igarotzen diren linea elektrikoek, segurtasunari buruzko indarreko araudia betetzeaz gainera, hegaztiak babesteko gailuak eduki beharko dituzte.
- g) Elektrizitatea garraiatzeko linea berriak eraikitzekeo premia justifikatu egin beharko da, eta linea zaharrak kentzeko aukerak aztertuko dira; halaber, dauden igarobideak edo beste linea batzuk aprobetxatuko dira (lineak trinkotu), ingurumen-inpaktuak desagerrarazi edo mugatzeko.
- h) Aprobetxamendu hidroeletrikoetan, instalazioak pilotzearen efektua aztertuko da, ezaugarri ekologikoek eta morfodinamikoek edota ebaluatutako ibaietako ur-erabilerekin ondorio txarrik jasan ez dezaten.

30. artikulua. Ustezko zona arkeologikoak

Plan Berezia gauzatzean, kontuan hartuko dira hala ustezko zona arkeologikoak egotearen ondoriozko mugak, nola Plan Bereziaren esparruan egindako arkeologia-txostenak, bat etorrita Euskadiko Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearekin.

Jarduketa abiatu aurretik, balorazio-zundaketak egingo dira, eta, hondakin handiak agertuz gero, induskatu egin beharko dira; ondoren, obra guztien kontrol arkeologikoa egin beharko da.

Esku-hartzea amaitutakoan, Udalarari horren berri emango zaio, hala badagokio obra-lizentzia eman dezan.

Esku-hartzearen ondoren zona batzuk baloratu gabe geratzen badira, obrak kontrol arkeologikoaren pean egin beharko dira.

31. artikulua. Lurzoru kutsatuak

Kutsadura-aztarnarik somatuz gero, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betetzeko, gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

32. artikulua. Gainazaleko urei egiten zaien erasana

Instalazio fotovoltaikoa egiteko proiektuan, xehe aztertu beharko dira ekaitzek edo eguraldi txarrak erreken eta errekaetako gainazaleko uretan eragin ditzaketen kalteak, instalazio berriek partzelen orografia alda dezaketelako.

33. artikulua. Lurzorua jatorrizko egoerara itzultzea
Instalazioa, bizitza baliagarria amaitzen zaionean, desmuntatu egingo da, eta lursaila jatorrizko egoerara itzuliko da, nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera ezar dadin.
Jarduera-lizentzia emateko baldintza bat izango da hori, eta proiektuaren sustatzaileak horretarako konpromisoa hartu beharko du. Hala, etorkizunean beste norbaitek erosten baditu instalazioak, erosle horrek bere gain hartuko du konpromisoa; hots, instalazioak ixteko ulean jardueraren titularrak denak baldintza hori bete beharko du.
Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak lurzoruaren erabilera jatorrizko egoerara (hau da, nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera) itzultzeko konpromiso formala edo antzeko dokumentu bat eskatu ahaliko dio entitate sustatzaileari, baina konpromisoa bermatuta egongo da aurreko paragrafoan adierazitako jarduera-lizentziaren baldintzarekin.

LAUGARREN TITULUA: EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAREN
ERABILEREN, ERAIKINEN ETA HIRIGINTZAREN ERREGULAZIOA

1. kapitulua Erabilera-baldintzak

34. artikulua. Erabilera-baldintza orokorrak

1. Erabilera nagusia: Energia elektrikoa sortzeko instalazioa. Eguzki-energia elektrikoa sortzea sistema fotovoltaikoen bidez eta energia hori banaketa-sarera lotzea. Jarduera horri zuzenean lotutako erabilerak ere barruan sartzen dira: material- eta ekipo-biltegiak, zaintza- eta segurtasun-instalazioak edota parke fotovoltaikora lotutako barne-azpiegiturak eta barne-bideak.
2. Erabilera bateragarriak:
 - Instalazio fotovoltaikoarekin bateragarriak eta/edo sinergikoak diren nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak (energia agrotvoltaikoa).
 - Eremuko kultura-intereseko ondasun arkeologikoetara lotutako erabilera kulturalak.
 - Eremuaren barruan kokatutako eremu libreak eta berdeguneak.
3. Erabilera debekatuak: aurreko kategorietan sartzen ez diren erabilerak; bereziki, energia sortu eta banatzearekin zerikusirik ez duten industria nahiz jarduerak eta bizitegi-erabilera.

35. artikulua. Erabilera-baldintza bereziak

1. Armiñongo arau subsidiarioen zehaztapenetan oinarrituta, 6. artikulutik 11. artikulura jasotzen diren kalifikazio xehakatuak zonatarako ezarritako baldintzak.
2. 8. zona (kultura-intereseko ondasun higiezinak babesteko eremua) eta 9. zona (bide-komunikazioak babesteko eremua) salbuespena dira, eta horietan ezingo da ezarri parke fotovoltaikoaren erabilera. Bi eremuak lurralde-jarraitutasuna bermatzeko daude sartuta Plan Bereziaren eremuan, baina parke fotovoltaikoaren erabilera ez dago batean ere baimenduta.

36. artikulua. Interes publikoaren adierazpena

Arabako Foru Aldundiak plan berezi hau onesteak berekin dakar interes publikokoa delako adierazpen zehatza, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 4.3 artikuluan jasotzen den bezala.

2. kapitulua Eraikinaren eta instalazioen ezaugarriak

37. artikulua. Eraikinaren baldintzak

1. Gehieneko eraikigarritasuna:

1.200 m²-ko gehieneko eraikigarritasuna ezartzen da instalazio fotovoltaikoaren eraikin osagarrietarako (sarbideen kontrola, biltegia eta abar).

2. Okupazioa, gehienez:

Gehieneko eraikigarritasunaren % 100 okupatu ahal da gehienez. 1.200 m²

3. Gehieneko lerrokadurak:

Antolamendu orokorrari buruzko 02.1AP planoan gehieneko eraikuntza-lerrokadura gisa jasotzen diren bi eremuen barruan garatu ahalgo dira ezarritako gehieneko eraikigarritasuna eta okupazioa. Lerrokadurak eta sestrak. Eraikinek hartzen ez dituzten eremuetan, plaka fotovoltaikoak jarri ahalgo dira.

4. Gehieneko profila eta altuera:

Gehieneko profila BS+1ekoa izango da, eta erlaitzen gehieneko altuera 9 m-koa izango da. Eraikineko fatxadaren planoarekin bat egiten duen forjaketaren barrualdeko elkarguneraino neurtuko da eraikinaren altuera, Armioongo arau subsidiarioen 19. artikuluan adierazitakoaren arabera.

38. artikulua. Instalazioen baldintzak.

1. Kontzeptua:

Instalaziotzat jotzen dira parke fotovoltaikoak funtzionatzeko behar diren eta eraikitzen jotzen ez diren elementu eraiki guztiak: modulu edo plaka fotovoltaikoak, ekipoak eta instalazioak gordetzeko eraikuntzak eta azpiestazio elektriko bat.

2. Gehieneko lerrokadurak:

02.1AP planoak (Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak) ezartzen ditu instalazioaren gehieneko lerrokadurak, eta horien barruan garatu ahalgo dira gehieneko eraikigarritasuna eta okupazioa.

Eremu espezifiko eta bereizi bat ezartzen da azpiestazio elektrikorako, eraiki behar bada ere. Eremu horren barruan, halaber, plaka fotovoltaikoak jarri ahalgo dira.

Azpiestazio elektriko bat eraikitzen bada, instalazioak funtzionatzeko behar diren eraikin eta eraikuntza osagarriak eraiki ahalgo dira, eraikigarritasun berezirik gabe. 02.3AP planoak azpiestazio tipo baten ezaugarriak jasotzen ditu.

3. kapitulua Baldintza estetikoak eta apaingarriak

39. artikulua. Eraikinik eta instalaziorik ez duten eremu pribatuen tratamendua

Jabetza partikularrik ez duten eremuak apaindura- eta osasungarritasun-baldintza egokietan edukiko dira, eta hartzen dituzten erabileretarako egokia izango den hirigintza izango dute.

40. artikulua. Lurzatiaren itxitura

1. Perimetroko itxitura, segurtasun-kontuak tarteko, funtsezko betekizuna da eguzki-energia sortzeko instalazio mota hauetan.

Espainiako Sare Elektrikoaren lineak eta oliobideak sortutako zortasun-eremuen muga hesitu ahalgo da, betiere azpiegituraren entitate kudeatzaileari sartzeari uzten bazaio.

2. 02.1AP planoan (Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak) jaso da lurzatioko itxituraren gehieneko lerrokadura.

3. Hesiak honako ezaugarri hauek izango ditu, basafaunaren gaineko inpaktuak gutxitzeko helburuz:

- Ehiza- edo abeltzaintza-hesiak, ahal dela 2 m baino baxuagoak.
- Tamaina txikiko eta ertaineko faunarekiko iragazkorra den diseinua.
- "Katazulo" motako pasabideak.

- Hesia hegaztien talken aurkako gailuarekin seinaleztatzea.

4. kapitulua Urbanizazioaren baldintzak eta zerbitzuen azpiegiturak

41. artikulua. Lur-mugimendua

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza-proiektuan zehaztuko dira lursailaren behin betiko sestrak, lur-mugimenduak ahalik eta gehien murrizteko eta, ahal den neurrian, oraingo topografiaren ezaugarriei eusteko irizpide orokorraren barruan beti.

Lur-mugimenduak gainazaleko urei eragiten dien erasana baloratu beharko da (32. artikulua).

42. artikulua. Lurzatiaren barruko urbanizazioa

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza-proiektuan zehaztuko dira lurzatiaren barruko urbanizazioaren ezaugarriak, aurreikusitako erabilerekin bat eta azalera iragazgaitua ahalik eta gehien murrizteko irizpide orokorra errespetatuta.

43. artikulua. Aparkalekuak

Lurzatiaren barruan aparkalekuak jarriko dira, toki bat 100 m²t bakoitzeko. Eraikuntza-proiektuan, ratio hori betetzen dela justifikatu beharko da, kontsumitzen duen eraikigarritasunaren arabera.

44. artikulua. Saneamendua

Arazketa-sistema autonomo bat jartzen bada, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak isuri-baimena izapidetu beharko du Uraren Euskal Agentzian, eta eman. Bada, baimen hori nahitaezkoa izango da, eta jarduera ezarri eta martxan jarri aurretik lortu beharko da.

45. artikulua. Errepide Zerbitzuaren txostenaren ondoriozko baldintzatzaileak

Lur-berdinketa:

Lurzatia berdintzean, 02.1AP planoan (Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak) marraztutako zortasun-eremuak libratu beharko dira. Lur-berdinketarekin, ez zaio eragingo lurzatiarekin muga egiten duten errepedeen drainatzeari, eta ezingo da inoiz urik isuri errepedeen areketara.

Itxitura:

Instalazioa hesitzean, Errepide Zerbitzuak proiektua idazteko emandako planoetan marraztutako zortasun-eremuak libratuko dira, zeinak 02.1AP planoan (Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak) jasota baitaude.

Proiektatutako instalazioei zerbitzu emateko bideak egitean ere, eragindako errepedeen zortasun-eremua libratu beharko da.

Sarbideak:

A-4157 auzo-sareko errepedetik lau sarbide egitea aurreikusi da; aurretik, baina, Errepide Zerbitzuak eraikuntza-proiektu bat idatzi beharko du, eskudun teknikari batek sinatua eta dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia. Proiektu horretan, sarbideen trazadura, seinaleztapena, bide-zorua eta drainatzea jasoko dira, eta A-4157 errepedearen ezaugarriak aztertuko dira (hala nola, goitiko, aurretiko eta profileko bistak, ikusgaitasuna, seinaleztapena, bestelako sarbideak eta, hala badagokio, auzo-sareko errepedearen gaur egungo trazadura hobetzeko neurriak). Errepide Zerbitzuak proiektua gainbegiratuko du, eta, hala egokituz gero, baimendu.

Gainera, baldintzatzaile hauek bete beharko dira:

- Sarbideen eta A-4157 errepedearen arteko loturak 15 m-ko radioak izango ditu gutxienez, eta abiadura aldatzeko tarteez bat egingo dute indarreko araudiarekin.

- Errepidearen drainatzea ez kaltetzeko, arekak babesteko tutuak jarri beharko dira, 0,40 m-ko edo hortik gorako diametrodunak. Hormigoiarekin finkatu eta indartuko dira.
- Ibilgailuek errepidea zikindu ez dezaten, sarbideetan 25 metro inguru zolatuko dira, errepidearekiko loturatik. Bide-zoru bituminosoarekin zolatuko dira bide horiek.
- Errepidearekiko elkargunean "STOP" seinalea jarriko da, R-2 modelokoa, eta "Bideko markak" 8.2-IC jarraibideetan adierazitakoa bete beharko da.

Eragindako errepide-tarte osoan, bide-zorua indartu beharko da nahasketa bituminoso beroarekin (5 cm, AC 16 Surf 50/70 S ofita); bitarteko mekanikoekin trinkotuko da nahasketa. Aglomeratu-geruza mozteko, disko-zerra erabiliko da, eta, errodadura-geruza egin ondoren, bideko markak jarri beharko dira.

Azpiestazioarekiko lotura:

Instalazioa Miranda Ebroko azpiestazioarekin lotzen bada eta konexioa foru-sareko errepideen babes-eremuaren barruan badago, errepideen polizia-eremuan jarduteko baimena lortu beharko da.

Zerbitzuen kanalizazioak:

Aurreikusitako kanalizazioak A-4157 auzo-sareko errepidearen lur-berdinketaren kanpoko ertzetik 7 metrora baino gehiagora egin beharko dira, eta AP-68 autobidearen lur-berdinketaren kanpoko ertzetik 21 metrora baino gehiagora.

AP-68aren beheko igarobidearen inguruan aurreikusi den kanalizazio-tarte elektrikoa (A-4157 errepidearen 31+900 kp) sator-modura egin beharko da, eta ezingo da beheko igarobidearen barrualdetik igaro. Bidegurutzea AP-68 autobidearen galtzada-ardatzarekiko ahalik eta perpendikularren egingo da, auzo-sarearekin paralelo, zerbitzu-linea orokorrak errespetatuta.

Zuloa lur-berdinketaren sestraren azpian egingo da, eta zorroaren goiko sorgailuaren gutxieneko sakonera 1,50 m-koa izango da, beheko galtzadaren sestrari (A-4157) dagokionez. Sakonera hori errepideen zortasun-eremuetan ere errespetatu beharko da, errepideak etorkizunean zabaltzen edo berritzen badira erasanik sor ez dadin.

Igarobide ekologikoa:

Proposatutako antolamenduan, igarobide ekologiko bat sortzea aurreikusi da; bertan, ez da plaka fotovoltaiikorik jarriko, ezta igarobidearen eraginkortasuna mugatu dezakeen azpiegiturarik ere. Korridore ekologiko horrek Zadorra ibaiaren KBEarekin (Ihuda ibaiaren KBEarekin bat egiten du) lotuko du Lacorzanako urmaela, baita eremuaren iparraldean dagoen muinoarekin ere. Horrela, Zadorra ibaiaren KBEaren ibai-igarobidearen bidez, igarobide ekologiko berriarekin, Lacorzanako urmaeleko eta iparraldeko muinoko prozesu ekologikoak mantenduko dira, eta Ebro ibaiaren KBEarekin lotuko dira biak, 1,5 km eskasera baitago.

Igarobide ekologikoa egitean, AP-68 autobidearen jabari publikoko eremua libratuko da.

INGURUMEN-AZTERKETA

LOCARZANAKO (ARMIÑÓN, ARABA) EKIENEA PARKE FOTOVOLTAIKOAREN PLAN
BEREZIA

1. TXOSTEN HONEN XEDEA
 2. INGURUMEN-ALDERDIAK PLAN BEREZIAN TXERTATZEA
 3. PLAN BEREZIAN KONTUAN HARTZEA INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOKO GOGOETAK ETA INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN JENDAURREKO INFORMAZIO-PROZESUAREN ETA KONTSULTA-PROZESUAREN EMAITZAK
 4. HAUTATUTAKO AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA
 5. PLAN BEREZIAREN INGURUMEN-JARRAIPENERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN AZALPENA
- 5.1 Kontrol-adierazleak
- 5.2 Kontrol-neurriak

1. TXOSTEN HONEN XEDEA

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 26. artikuluari (Plana edo programa abian jartzearen edo onestearen publizitatea) erantzutea da dokumentu honen xedea (zehazki, 26.2.b) artikuluari), bai eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 7.2 artikuluari erantzutea ere. Bada, 7.2 artikulua arabera, sustatzaileak planean edo programan sartuko du ingurumen-adierazpen estrategikoaren edukia, eta, legedi sektorialean jasotzen denarekin bat, organo substantiboaren onespeneraren mende utziko du, honako alderdi hauek bilduz:

- 1. Nola integratu diren planean ingurumen-arloko alderdiak.*
 - 2. Planean nola hartu diren kontuan ingurumen-azterketa estrategikoa, jendaurreko informazioaren emaitzak eta kontsulten emaitzak, barnean hartuta, hala badagokio, mugaz gaindiko kontsultak eta ingurumen-arloko adierazpen estrategikoa, bai eta prozesuan sortutako desadostasunak ere, halakorik izan bada.*
 - 3. Aukeratutako hautabidea hautatzeko arrazoiak, aintzat hartutako gainerako hautabideekin alderatuta.*
- c) Planaren aplikazioak ingurumenean izandako eraginaren jarraipena egiteko hartu diren neurriak.*

Aurreko apartatuak garatu aurretik, Plan Bereziaren ezaugarrien laburpen txikia egingo da.

2. INGURUMEN-ALDERDIAK PLAN BEREZIAN TXERTATZEA

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren Ingurumen Iraunkortasunerako Zerbitzuak, ingurumen-azterketa estrategikoa irismen-dokumentuaren arabera egin ondoren, AFaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak hala eskatuta, **Lacorzanako (Armiñón, Araba) “Ekienea” Parke Fotovoltaikoaren Plan Bereziaren ingurumen-adierazpen estrategikoa idatzi du, zeina ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren mende baitago, 21/2013 Legearen 25. artikulua ezarritakora egokituta (forman eta edukian).**

Hemen laburtuko ditugu ingurumen-adierazpen estrategikoan jasotzen diren zehaztapen nagusiak, Plan Bereziaren eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jasotzen direnak:

1.- Plan Bereziaren antolamenduan, babes-banden zonifikazioa sartuko da, IAEaren 10.1 atalean jasotzen den eremuko ingurumen-balio nagusien gainean, eta zona horietan ezingo da onartu plaka fotovoltaikoak eta horiekin lotutako beste azpiegitura batzuk instalatzea. Kartografian adierazitako atzeratze-tarteak (150 m, 100 m eta 40 m) eguzki-instalazioaren itxituretaraino edo hesietaraino ezartzen dira, eta plaka fotovoltaikoak hesitutako azaleraren barruan geratzen dira; beraz, babestu behar diren ingurumen-elementuetatik metro batzuk harago daude.

Atzeratze-tarte horiek Plan Bereziaren antolamenduan, ordenamendu-planoetan eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

2.- IAEan ezartzen diren ingurumen-babeseko bandez gainera, beharrezkotzat jotzen da 100 metroko babes-banda bat ezartzea, igarobide ekologiko gisa, Zadorra ibaiaren KBEaren ondoan, AP-68 autobidearen ekialdean, 10 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duen zona batean. Zona horretan, Ihuda ibaiaren KBEak bat egiten du Zadorrarekin, Zadorra ibaiaren KBEaren babes-eremu periferikoa hartzen baitu. Bereziki sentikorra den korapilo hidrológico horretan, ibaiertzeko landaredia indartzeko jarduketak egin beharko lirateke, eta zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak landatu. Neurri horrek ez du bat egiten uholde-arriskuko eremu horretan frutarbolak landatzeko planteamenduekin, zeina “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-

ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamenean” jasotzen baita (ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskin gisa aurkeztu da proposamen hori). Horren ondorioz, planteamendua berrikusi beharko litzateke KBEaren periferiako babes-zonari dagokion 100m-ko banda horretan.

Ingurumen-azterketa estrategikoaren V. eranskinean (Nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektua), proposamena aldatu da, eta KBE-etako landaredia indartzeko erabili da 100 metroko banda.

3.- Era berean, berrikusi egin behar da eremuaren hegoaldean egindako planteamendua, Lacorzanako urmaela eta Zadorra ibaiaren KBEa lotzeko igarobide ekologikoak 100 metroko zabalera izan behar baitu gutxienez. Gainera, eremu horretan “botila-lepoa” saihestu behar da, IAEko planteamenduaren arabera, botila-lepo horrek zalantzan jarriko lukeelako ezarri behar den babes-bandaren funtzionaltasun ekologikoa.

Plan Bereziaren antolamenduan eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jaso dira atzeratze-tarteak, antolamendu-planoekin batera (zehazki, VIII. eranskinean, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan), lehengoratzeko eremu berri bihurtuz sustatzailearen hegoaldeko lursail batzuk.

4.- Igarobide ekologikoan hartu beharreko neurriez gain, ingurumena lehengoratzeko eta hobetzeko jarduketak aurreikusiko dira, Plan Bereziaren eremua zeharkatzen duten 220kV-ko goi-tentsioko linearen, oliobidearen eta bide-azpiegituren (AP-68 eta A-4157) zortasun-eremuetan. Hori guztia administrazio-organo eskudunek gune horietarako ezartzen dituzten gogoeta eta zehaztapenekin bat etorri. Horretarako, bertako belarra eta zuhaixkak erabili ahalko dira (eta, hala badagokio, hazkunde ertaineko edo txikiko zuhaitzak} birlandaketak egiteko, sektoreko organo horiek ezartzen dituzten baldintzekin bat etorri.

Jarduera horiek funtzionaltasun bikoitza izango dute, ekologikoa eta paisajistikoa. Izan ere, ingurumen-intereseko eremuen arteko konektagarritasuna indartzeaz gain, ikusmen-inpaktua murrizten lagunduko dute ikusleen kontzentrazio handieneko eremuetatik (bereziki, AP-68 autobidetik).

Gogoeta hori Plan Bereziaren eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jaso da (zehazki, VIII. eranskinean, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan).

5.- Igarobide ekologiko gisa ezarritako eremuetan, Lacorzanako urmaelaren eremuan eta Zadorra ibaiaren KBEaren ingurune hurbilean, IAEren osagarri diren azterlan faunistikoetan jasotzen diren kudeaketa-proposamenei erantzungo zaie (VII. eranskina, azterlan faunistiko osagarriak). Bereziki, honako hauei dagokienez: hegaztien, odonatuen eta herpetofaunaren jarraipenerako azterketak, uretako landarediaren jarraipena, hezeguneko espezie exotikoen kontrola, ezarritako igarobide ekologikoen ezarpena eta kudeaketa egokia, putzu sateliteen sorkuntza (azterlan herpetofaunistikoak zehaztutako eremuetan) eta herpetofaunarako babeslekuen sorkuntza. Azterlan faunistiko horiek egiten dituzten adituen irizpideen arabera definituko dira irtenbideak.

Gogoeta hori Plan Bereziaren eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso da.

6.- Aurreko puntuan ezarritako eremu horiek guztiak berdegune eta igarobide ekologiko gisa definituko dira Plan Bereziaren antolamenduan, eta ingurumena lehengoratzeko neurriak xehetasunez zehaztuko dira, habitat naturalak lehengoratzeko eta, era berean, ingurumenaren aldetik kalitatezkoak eta sentikorak diren eremuetan bizi diren

basafaunako espezieen eskakizunei erantzuteko. Neurri horiek ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko proiektu batean bildu beharko dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio, onetsi ditzan.

Gogoeta hori Plan Berezian eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jaso da (zehazki, VIII. eranskinean, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan).

7.- Parke fotovoltaikoa instalatzeko bakar-bakarrik kenduko da behar-beharrezkoa den landaredia, eta instalazioaren kanpoko ertzetan edo mugetan dagoen zuhaixka- eta zuhaitz-landarediari eutsiko zaio, energia ekoizteko jarduera nabarmen oztopatzen ez den eremuetan.

Gogoeta hori Plan Berezian eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jaso da (zehazki, VIII. eranskinean, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan, eta V. eranskinean, nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektuari buruzkoan, hurrenez hurren).

8.- Parke fotovoltaikoaren barruko esparruan landare-estalkia mantentzeko lanak: landaredia metodo mekanikoen bidez kontrolatuko da, ahal dela herbizidarik erabili gabe. Jarduera-eremuaren gehiengo akuiferoen kalteberatasun handiko zona batean dagoenez, kontuan hartuko dira nekazaritza eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik urak babesteko arauak. Landaredi arrotza kontrolatzeko har daitezkeen neurrien artean, kontuan hartuko da eremukoazienda estentsiboak (batez ere, ardiek) larrean bertan jan dezakeela, "Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamenak" (IAEren dokumentu osagarria da) adierazi moduan.

Gogoeta hori Plan Berezian eta ingurumen-ebaluazio estrategikoan jaso da (zehazki, VIII. eranskinean, ingurumena lehengoratzeari buruzkoan, eta V. eranskinean, nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektuari buruzkoan, hurrenez hurren).

9.- Ahalik eta gehien kontserbatu beharko dira erasan daitezkeen eremuaren gaur egungo geomorfologia edo topografia, eta plakak "hantura" bidez jartzen saiatu beharko da, indusketa gutxienezkoa izan dadin eta urmaeleko isurketa-arroa murriztu ez dadin. Instalazio fotovoltaikoa jartzeko kenduko den landare-lurrari dagozkion lurzoruhorizonteak gaika kendu beharko dira, eta komeni da berehala birbanatzea edo pilatzea, eremuko ingurumena lehengoratzeko berrerrabiltzeko.

Gogoeta hori Plan Berezian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso da.

10.- Itxiturak izan behar dituen ezaugarriak, basafaunari ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko:

- Ehiza- edo abeltzaintza-hesiak, ahal dela 2 m baino baxuagoak.*
- Tamaina txiki eta ertaineko faunarekiko iragazkorra den diseinua.*
- "Katazulo" motako pasabideak.*
- Hesia hegaztien talken aurkako gailuarekin seinaleztatzea.*

Gogoeta horiek Plan Berezian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

11.- Eguzki-parke fotovoltaikoa eraikitzekeo proiektuan, honako hauek zehaztu behar dira: lurzatiaren barruko urbanizazioaren ezaugarriak, panelen mantentze- eta garbiketa-lanak (maiztasuna, erabilitako produktuak, beharrezko ura, hondakinen kudeaketa etab.) eta

energia husteko linea elektrikoa (instalazio fotovoltaikora konektatuko den 13,2 kV-ko linea elektrikora konektatzeko euskarriraino). Proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren esparruan, alderdi horiek aztertuko dira.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

12.- Honako leku hauetan, irizpide tekniko-ekonomikoak eta ekologia- zein paisaia-arloko alderdiak bateratu beharko dira: obrarako materialak biltzen diren tokietan, makineria-parkeetan, landare-lurren eta indusketen ondorioz sorturiko behin-behineko hondakinen biltegietan, instalazioetan eta eraikuntza-lanak egiteko beharrezkoak diren beste eraikin osagarri batzuetan. Horrela, eremu babestuetatik hurbil dauden tokiak eta eremu horietara doazen tokiak saihestuko dira. Kokaleku horiek, adierazitako irizpideen arabera, eraikuntza-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan zehaztu beharko dira.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

13.- Inpaktu txikiko argiztapen-sistemak erabiliko dira. Eraikuntza-proiektuaren mailan definitu beharko dira, eta proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko prozeduraren esparruan aztertuko eta baloratuko dira. Horri dagokionez, ingurumenaren aldetik oso hauskorrak diren eremuen inguruetan, neurri bereziak hartuko dira. Berriazko zaintza-plan bat zehaztuko da, bai ezarritako argi-mailak gainditzen ez direla egiaztatzeko, bai, nolana ere, ingurunean eremu naturaletan bizi diren fauna-espezie babestuei ondorio negatiborik ez eragiteko.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

14.- Urmaelaren eta Zadorra ibaiaren KBEaren inguruan babes-neurriak hartu beharko dira, plaka fotovoltaikoak instalatzeko lanak egiten diren bitartean hezegunean edo ibaian solido esekiak (lastozko fardelak, aldi baterako dekantazio-putzuak eta abar) jarriko ez direla bermatzeko. Neurri horien definizio zehatza instalazioaren eraikuntza-proiektuari dagokio, eta proiektuaren mailan inpaktua ebaluatzeko prozeduran aztertuko dira.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

15.- 3. puntuan adierazten den ingurumena lehengoratzeko eta paisaia integratzeko proiektuarekin batera, ingurumena babesteko plan bat eta ingurumenaren jarraipena egiteko plan bat definitu eta aurkeztuko dira. Azken plan horretan, ingurumenaren aldetik sentikorragoak diren eremuak zehaztuko dira plaka fotovoltaikoak instalatzeko jarduketaren eremuaren barruan, eta obrak egitean hartzeko babes-neurri eta -manu espezifikoak zehaztuko dira, inguruneari kalte egiteko arriskuak minimizatzen.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 11. apartatuan (Plan Bereziaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien azalpena) jaso dira, hurrenez hurren.

16.- Ingurumenaren jarraipen-plana gauzatzeko, zehaztasunez garatuko da IAEaren 11. atalean adierazitako planteamendua, eta Zadorra ibaiko eta Lacorzana urmaeleko KBEan uraren kalitatean eta egoera ekologikoan izan daitezkeen aldaketak antzemateko prebentzio- eta zaintza-sistema bat aurreikusiko da. Horri dagokionez, kontuan hartuko dira egindako azterlan faunistikoetan ezarritako gomendioak, eta instalazioa martxan dagoen bitartean erasan daitezkeen ingurune fisiko eta biologikoa aztertzen jarraituko da.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 11. apartatuan (Plan Bereziaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurrien azalpena) jasotzen dira, hurrenez hurren.

17.- Ustezko zona arkeologikoen eta ondare-elementu katalogatuen balio nagusiak babesteko neurriak hartuko dira, bat etorrira ingurumen-azterketa estrategikoaren VI. eranskinean zehazten diren irizpide eta zehaztapenekin eta, nolabehere ere, bat etorrira kultura-ondarearen arloan eskudunak diren organoek ezartzen dituzten irizpide eta zehaztapenekin.

Gogoeta horiek Plan Bereziaren araudian eta ingurumen-azterketa estrategikoaren 10. apartatuan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta) jaso dira.

3. PLAN BEREZIAN KONTUAN HARTZEA INGURUMEN-AZTERKETA ESTRATEGIKOKO GOGOETAK ETA INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN JENDAURREKO INFORMAZIO-PROZESUAREN ETA KONTSULTA-PROZESUAREN EMAITZAK

Hasiera batean, Alkatetzaren maiatzaren 19ko Ebazpenaren bidez (2021eko uztailaren 14ko ALHAO, 78. zk.) onetsi zen Lacorzanako (Armiñón) Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia, eta, bat etorrira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95.2 eta 97.1 artikuluekin, jendaurrean jarri zen borrogeita bost egunez. Halaber, jendaurrean jarri zen, borrogeita bost egunez, hasieran onetsitako Plan Bereziaren "H agirian" jasotako ingurumen-ebaluazio estrategikoa, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Aurretik, 2021eko maiatzaren 12an, Armiñongo Udalaren Hirigintza Sailaren Atal Teknikoak aldeko txostena eman zuen.

2020ko urriaren 26an, Plan Bereziari hasierako onespina eman aurretik, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoei buruzko txostena idatzi zuen. Plan Berezia jendaurrean jartzeko aldiari, Armiñongo Udalak bost alegazio jaso zituen.

2021eko apirilaren 12an, eskudun teknikariak euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena eman zuen, eta ondorioztatu Plan Bereziak ez duela hizkuntza-inpaktu nabarmenik eragiten eta, hortaz, ez dela zertan hizkuntza-inpaktua aztertu.

2021eko uztailaren 7an, eskudun teknikariak txosten bat eman zuen, generoaren ikuspegitik garrantzizko eraginik ez dagoela arrazoitzeko.

2021eko uztailaren 9an, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza txostena idatzi zuen, Lacorzanako Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Bereziaren hasierako onespinari buruzkoa.

2021eko uztailearen 22an, arkeologia-ondareari egingo zaion erasanari buruzko txostena eman zuen Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren Museo eta Arkeologia Zerbitzuak.

2021eko abuztuaren 4an, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren Kultura Ondarearen Zerbitzuak Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Bereziari buruzko txosten teknikoa eman zuen.

2021eko abuztuaren 23an, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak (IHOBE) Armiñongo Ekienea parke fotovoltaikoari buruzko txostena eman zuen, parkeak lurzoru kutsatuei eragin diezaiekeen erasana aztertzeko.

2022ko irailaren 8an, Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Errepide Zerbitzuak txostena eman zuen, Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia behin betiko onetsi aurretik bete beharko liratekeen baldintza teknikoei buruzkoa.

2021eko azaroaren 8an, URA-Uraren Euskal Agentziak plangintzari eta obrei buruzko txostena eman zuen, Lacorzanako (Armiñón, Araba) Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Bereziaren onespenerari dagokionez.

2021eko abenduaren 22an, idazketa-taldeak alegazioei erantzuteko txostena aurkeztu zuen Armiñongo Udalean.

Aurrekoari erreparatuta, Plan Berezia behin-behinean onesteko dokumentua idatzi zen, hasieran onetsitako dokumentuari egokitzapen batzuk egiteko eta izendatutako organo sektorialetan egin beharreko zuzenketak berariaz aipatzeko.

Jatorria:

Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusia

Ezarritako baldintzak:

Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak ezarri dira

Plan Berezira sartutakoak:

24. artikulua aldatu da, eta 04.AP plano (Gasteizko aireportuko zortasun aeronautikoak) sartu.

Jatorria:

Alegazioak

Ezarritako baldintzak:

Honako hauen alegazioak jaso dira: Aranzadi Zientzia Elkarte (2), Arabako Natur Institutua, Mario Sáenz de Buruaga Tomillo eta Equo Berdeak.

Plan Berezira sartutakoak:

11.4 apartatua sartu da Plan Bereziaren memoriara, alegazioen txostena.

Jatorria:

Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza

Ezarritako baldintzak:

Kontuan hartzeko zuzenketa-neurriak:

1. Plakak, ahal bada, balio estrategiko handikoak ez diren lurzoruetan jartzea.
2. Balio estrategiko handiko lurzoruen kontsumoa murriztea, plaka gutxiago jarrita edo proposatutako berdeguneak sortuta.
3. Aurreikusitako instalazio fotovoltaikoarekin bateragarriak eta osagarriak diren nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak garatzea, nekazaritza-jardueraren gaineko inpaktua konpentsatzeko.
4. Balio estrategiko handiko lurzoruen galera konpentsatzeko konpentsazio-neurriak (partzialak) hartzea, udal-antolamenduan kategoria horretakoak izan daitezkeen beste azalera batzuk kalifikatuz eta lurzoru urbanizagarriko azalera deskalifikatzea lehenetsiz. Aukera hori ez litzateke Plan Bereziaren barruan planteatu beharko, udal-antolamenduaren hurrengo aldaketan baizik, aukera ematen badu.

Plan Berezira sartutakoak:

Kompentsazio-neurri berriak sartu dira V. eranskinean (Nekazaritzako sektore-eragina), Plan Bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoaren H agirikoak.

Jatorria:

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren Museo eta Arkeologia Zerbitzua

Ezarritako baldintzak:

Aurretik balorazio-zundaketak egitea eskatu du, eta, hondakin handiak agertuz gero, baita horiek induskatzea ere; ondoren, obra guztien kontrol arkeologikoa egin beharko da.

Esku-hartzea amaitutakoan, Udalari horren berri emango zaio, hala badagokio obra-lizentzia eman dezan.

Esku-hartzearen ondoren zona batzuk baloratu gabe geratzen badira, obrak kontrol arkeologikoaren pean egin beharko dira.

Plan Berezira sartutakoak:

Hirigintza-arauen B dokumentuaren 30. artikulua (Usteko zona arkeologikoak) osatu da.

Jatorria:

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza

Ezarritako baldintzak:

Ondare Babesa SL enpresak ingurumen-azterketa estrategikorako egin duen txostenean, ondo jasotzen dira proiektuak kaltetu ditzakeen elementuak; horretarako, kultura-ondarean izan daitezkeen ondorioak identifikatu, deskribatu eta ebaluatu dira, eta kasu bakoitzean aplikatu behar diren araudia eta neurriak (kontrola, zundaketa arkeologikoak...) jaso dira.

Plan Berezira sartutakoak:

IAEaren VI. eranskinari (Esku-hartze arkeologikoko proiektua) egin zaio erreferentzia.

Jatorria:

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (IHOBE)

Ezarritako baldintzak:

Kutsadura-aztarnarik somatuz gero, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betetzeko, gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari.

Plan Berezira sartutakoak:

Lurzoru kutsatuei buruzko 31. artikulua idatzi da.

Jatorria:

Arabako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren Errepide Zerbitzua

Ezarritako baldintzak:

1. Instalazioaren gehieneko lerrokadura:
2. Proiektatutako instalazioaren tamaina dela-eta, instalazio fotovoltaikoa ezin da jo erraz desmunta daitekeen instalaziotzat; hortaz, une oro errespetatu beharko da Arabako Lurralde Historikoko errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauaren 42. artikulua arabera zehaztutako eraikuntza-lerroa.
3. Berdinketa-lanak, esparruaren itxitura eta zerbitzu-bideak:
4. Lurzatia berdintzean, zortasun-eremuak libratuko dira. Lur-berdinketarekin, ez zaio eragingo lurzatiarekin muga egiten duten errepideen drainatzeari, eta ezingo da inoiz urik isuri errepideen areketara.
5. Instalazioa hesitzean, Errepide Zerbitzuak proiektua idazteko emandako planoetan marraztutako zortasun-eremuak libratuko dira.
6. Proiektatutako instalazioei zerbitzu emateko bideak egitean ere, eragindako errepideen zortasun-eremua libratu beharko da.
7. Sarbideak
8. Sarbideek bete behar dituzten baldintzak ezarri dira.
9. Lotura posiblea Miranda Ebroko azpiestazioarekin.
10. Lotura hori egiten bada eta konexioa foru-sareko errepideen babes-eremuaren barruan badago, errepideen polizia-eremuan jarduteko baimena lortu beharko da.
11. Zerbitzuen kanalizazioak
12. Kanalizazioak egiteko baldintzak ezarri dira.
13. Igarobide ekologikoa

Igarobide ekologikoa egitean, AP-68 autobidearen jabari publikoko eremua libratuko da.

Plan Berezira sartutakoak:

Memoriaren 8.2 puntua aldatu da.

02.1AP plana (Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak) aldatu da.

Hirigintza-arauei buruzko B agiririari 45. artikulua erantsi zaio, Errepide Zerbitzuaren txostenaren ondoriozko baldintzatzailei buruzkoa.

Jatorria:

URA-Uraren Euskal Agentzia

Ezarritako baldintzak:

Ohar hauek egin dira:

1. Instalazioak Zadorra ibaiko ibilguen polizia-eremutik kanpo daudenez, bat etorrita Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan xedatzen denarekin, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskuduna den administrazioak baimendu beharko ditu uholde-arriskuko eremuetan kokatutako jarduketak, eta, gutxienez, kontuan hartu beharko dira erregelamendu horretan polizia-eremurako ezarritako mugaketak.
2. Saneamenduari eta arazketa-sistema autonomo bat jartzeko aurreikuspenari dagokienez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak isuri-baimena izapidetu beharko du

Uraren Euskal Agentzian, eta eman. Bada, baimen hori nahitaezkoa izango da, eta jarduera ezarri eta martxan jarri aurretik lortu beharko da.

Plan Berezira sartutakoak:

Hirigintza-arauei buruzko B agiririari 44. artikulua erantsi zaio, saneamenduari buruzkoa.

Proiektua jendaurrean erakusteko aldi 5 alegazio jaso dira. Hona hemen alegazioei buruz idatzitako txostenaren laburpena:

1. alegazioa: M.E.S.B.T

Noiz jaso zen: 2021-06-21

Honako hau adierazten du:

1. Ekidenea SL da Plan Bereziaren sustatzailea, eta Lacorzanako lursailen salerosketako eskritura publikoan adierazi zuen ez zuela instalazio fotovoltaiorik ezarriko 2. poligonoko 24. katastro-lurzati osoan.
2. Alegazioa jarri duenak eta haren familiak jabetzak dauzkate Lacorzanako landagunean, eta Ekieneak hitzartutakoa bete behar du, proiektuak ahalik eta inpaktu txikiena izan dezan landagunean. Beraz, 24. lurzati panel fotovoltaiorik jartzeko lursailtzat hartzeak ez dauka zentzurik.
3. Akatsa 7.5 apartatua (Zerbitzu-azpiegituren zortasunak) zuzentzean.

Eskaera:

1. Lerrokaduren eta sestren plano aldaztea eta 24. lurzati osoan plaka fotovoltaiorik jartzeko baimenik ez ematea.
2. Zortasunen eta garraio elektrikoaren lineen artean jartzea Lacorzanako zentral elektrikoaren eta Lacorzanako landagunearen artean dagoen linea elektrikoaren.

Balioespena:

1. Nahiz eta dokumentu publikoan esan 2. poligonoko 24. katastro-lurzati osoan ez zela proiektu fotovoltaiorik gauzatu, irekita utzi zen aurreko jabeen berariazko baimenarekin egitasmo hipotetiko bat abiatzeko aukera. Hori dela-eta, Plan Berezia idaztean, erabilera hori gaineratu da; hau da, oraingo erabilerrari eutsiko zaio, baina erabilera fotovoltaiorik ezartzeko aukera dago. Lurzoruaren antolamendu xehakatu baino ez da, inola ere ez proiektua gauzatzeko fasea.
2. Aipatu dituzun linea elektrikoak ez dira elektrizitatea garraiatzekoak, erdi-tentsioko lineak baitira. 23. artikulua aldatu da, eta honela geratu da:

“23. artikulua. Linea elektrikoek eragindako zortasunak

Plan Berezia betearaztean, aintzat hartuko dira Espainiako Sare Elektrikoaren elektrizitatea garraiatzeko linea elektrikoak nahiz eremutik igarotzen diren erdi-tentsioko lineek sortutako zortasunen ondoriozko erabilera-mugak (dokumentu honen memorian azaltzen dira), bat etorrita abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuarekin (1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, energia elektrikoaren instalazioen garraio-, banaketa-, merkaturatze- eta hornidura-jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena). Halere, obrak baimentzen direnean, baldintzak hitzartu ahaliko dira azpiegitura horren kudeatzailearekin”.

2. alegazioa: Aranzadi Zientzia Elkarte

Noiz jaso zen: 2021-07-01

Honako hau adierazten du:

2021eko ekainaren 2an, Armiñongo Udalaren iragarki bat argitaratu zen ALHAOn, zeinaren bidez hasierako onespina ematen baitzitzaion Lacorzanan parke fotovoltaiko bat jartzeko Plan Bereziari eta 20 eguneko epea ezartzen baitzen jendaurreko informazio-prozesurako. Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen 21. artikulua 45 eguneko gutxieneko epea ezartzen du jendaurreko informazio-prozesurako.

Eskaera:

Jendaurreko informazio-izapidea berrikustea.

Balioespina:

2021eko uztailearen 14an, Armiñongo Udalak berriro jarri zuen jendaurrean “Ekienea Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia”, ingurumen-ebaluazio estrategikoarekin batera, 45 egunez.

3. alegazioa: Arabako Natur Institutua

Noiz jaso zen: 2021-09-13

Honako hau adierazten du:

Plan Berezian antolatutako instalazio fotovoltaikoak biodibertsitateari eta landa-lurzoruari erasango die, eta hori bateraezina da eremuko balio berezien zaintzarekin.

Eskaera:

Fauna-talde jakin batzuei eragingo zaien erasanari buruzko azterlanak eta Lacorzanako urmaelarekiko atzeratze-tarteen alternatiben analisiak sartzea ingurumen-azterketa estrategikora.

Balioespina:

VII. eranskina gaineratu zaio ingurumen-azterketa estrategikoari, azterlan faunistikoei buruzkoa, eduki honekin:

- Lacorzanako urmaeleko odonatuei buruzko azterlana.
- Lacorzanako urmaeleko hegaztiei buruzko azterlana.
- Lacorzanako urmaeleko herpetofaunari buruzko azterlana.

4. alegazioa: Equo Berdeak

Noiz jaso zen: 2021-07-29

Honako hau adierazten du:

1. Euskadiko 2030eko Energia Estrategiak eta energia berriztagarri handien ezarpenak ez dute bat egiten Ministerioaren jarraibideekin, eta inpaktu txikiagoko beste aukera batzuk ez dira aztertu.
2. Proiektua ez da bateragarria Arabako Foru Aldundiaren Mugarri Planarekin.
3. Proiektuak ez du bat egiten Energiaren eta Klimaren 2021-2030eko Plan Nazional Integratuarekin (PNIEC) eta haren ingurumen-azterketa estrategikoarekin.
4. Proiektuak ez du bat egiten Trantsizio Ekologikorako eta Erroka Demografikorako Ministerioaren (MITECO) “Energia berriztagarrietarako zonifikazioa: eolikoa eta fotovoltaikoa” dokumentuarekin.
5. Proiektua ez da bateragarria nekazaritzako lurak babestu eta sustatzeko politikekin.
6. 0. aukeraren analisia ez da nahikoa.

7. Ez dago mehatxupeko espezieak kudeatzeko planik.
8. Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala egiteko prozedura hasi da
9. Proiektuak ez du bat egiten Europar Batasunak eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioak polinizatzaileak kontserbatzeko dituzten helburuekin.

Eskaera:

Proiektua ez baimentzea, ingurumen-ikuspegitik bideraezina delako.

Balioespena:

Armiñongo Udalaren ustez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak idatzitako irismen-dokumentuarekin bat etorritik idatzi dira Plan Berezia eta ingurumen-azterketa estrategikoa, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako eduki guztia sartu da, baita planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 11. eranskinean jasotakoa ere. Uste du Plan Bereziaren proposamena ez dela ingurumen-ikuspegitik bideraezina, eta, hortaz, Equo Berdeak proiektua ez baimentzeko egin duen eskaera ezesten da.

5. alegazioa: Aranzadi Zientzia Elkarte

Noiz jaso zen: 2021-09-14

Honako hau adierazten du:

1. EAEn ez dago plangintza sektorialik energia berriztagarrien proiektuak ezartzeko, eta alternatiben analisisa ezegokia da.
2. Ingurumen-azterketa estrategikoaren kalitate teknikoa baxua da: osatu egin behar da, eta berriro ere jendaurrean jarri.
3. Plaka fotovoltaikoek hartuko duten eremua berrikusi behar da, eta Plan Bereziaren antolamendua aldatu, berriro ere jendaurrean jartzeko.

Eskaera:

1. Armiñongo Udalak behin-behineko onespina eman urretik, ingurumen-azterketa estrategikoa osatu behar da, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak Plan Bereziaren irismen-dokumentuan eskatu zituen azterlan faunistikoak sartuta.
2. Eremuaren barne-antolamendua aldatu behar da, nabarmen murriztuz panel fotovoltaikoak ezartzeko eremua; bestalde, barne-antolamendurako alternatibatzat jo behar da ingurumen-azterketa estrategikoan, eta ingurumen-arloan baloratu.
3. Plan Bereziari hasierako beste onspen bat ematea eta berriro ere jendaurrean jartzea, Aranzadiri beste kontsulta bat egitearekin batera.

Balioespena:

VII. eranskina gaineratu zaio ingurumen-azterketa estrategikoari, azterlan faunistikoei buruzkoa.

Balioetsi denez, hasieran onetsitako dokumentuari egindako egokitzapen bat bera ere ez da funtsezkoa.

2022ko apirilaren 1ean, Armiñongo Udalak behin-behinean onetsi zituen Plan Berezia eta haren ingurumen-azterketa estrategikoa.

2022ko ekainaren 22an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Iraunkortasunerako Zerbitzuak (ingurumen-organoa) Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedurari buruzko ingurumen-adierazpen estrategikoa eman zuen, eta, bertan, Plana

ingurumen-ikuspegitik onargarria zela baloratu zuen, betiere txostenean ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

2022ko uztailaren 7an, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldeko txostena eman zion behin-behinean onetsitako dokumentuari.

2022ko uztailaren 12an, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txostena idatzi zuen, Lacorzanako Plan Bereziaren behin-behineko onepenari buruzkoa.

Txosten horren arabera, “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapien dibertsifikatua ezartzeko proposamena” egin da Nekazaritza Sailarekin lankidetzan, eta ingurumen-azterketa estrategikoaren V. eranskinean sartu, parke fotovoltaikoak eragindako erasana konpentsatzeko.

Proposamen berria kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak beste txosten bat eman zuen 2023ko apirilaren 13an, Ekienea parke fotovoltaikoaren erasana onargarritzat joz, betiere eragindako lurzatian nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusten bazaio.

Txosten horiekin bat etorritik, behin betiko onesteko dokumentua idatzi da, behin-behinean onetsitako dokumentuari egokitzapen hauek eginda:

Jatorria:

Ingurumen-organoa. Ingurumen-adierazpen estrategikoa (IAE)

Ezarritako baldintzak:

1. Plan Berezian txertatu beharko dira IAEan jasotzen diren zehaztapenak. Planaren araudiak IAEan jasotzen diren ingurumen-baldintzak gehitu beharko ditu. Plan Berezia behin betiko onesteko hirigintza-dokumentuan jasoko dira IAEko “Ingurumenean sortzen diren ondorio negatiboak prebenitu, murriztu eta konpentsatzeko neurrien proposamena” izeneko 10. kapituluan jasotzen diren ingurumen-integratioko neurriak.
2. IAEan ezartzen diren ingurumen-babeseko bandez gainera, beharrezkotzat jotzen da 100 metroko babes-banda bat ezartzea, igarobide ekologiko gisa, Zadorra ibaiaren KBEaren ondoan, AP-68 autobidearen ekialdean, 10 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duen zona batean. Zona horretan, Ihuda ibaiaren KBEak bat egiten du Zadorrarekin, Zadorra ibaiaren KBEaren babes-eremu periferikoa hartzen baitu. Berezi sentikorra den korapilo hidrologiko horretan, ibaiertzeko landaredia indartzeko jarduketak egin beharko lirakeke, eta zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak landatu. Neurri horrek ez du bat egiten uholde-arriskuko eremu horretan frutabolak landatzeko planteamendurekin, zeina “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapien dibertsifikatua ezartzeko proposamenean” jasotzen baita (ingurumen-azterketa estrategikoaren eranskin gisa aurkeztu da proposamen hori). Ondorioz, horri dagokionez, uste dugu KBEaren periferiako babes-zonari dagokion 100 m-ko banda horretan berrikusi beharko litzatekeela planteamendua, eta, beraz, IAEaren II. eranskin kartografikoaren 11. mapa berrikusi beharko litzateke.
3. Berrikusi egin behar da eremuaren hegoaldean egindako planteamendua, Lacorzanako urmaela eta Zadorra ibaiaren KBEa lotzeko igarobide ekologikoak 100 metroko zabalera izan behar baitu gutxienez. Gainera, eremu horretan “botila-lepoa” saihestu behar da, IAEko planteamenduaren arabera, botila-lepo horrek zalantzan jarriko lukeelako ezarri behar den babes-bandaren funtzionaltasun ekologikoa.
4. Ingurumena lehengoratzeko eta hobetzeko jarduketak aurreikusiko dira, Plan

Bereziaren eremua zeharkatzen duten 220kV-ko goi-tentsioko linearen, oliobidearen eta bide-azpiegituren (AP-68 eta A-4157) zortasun-eremuetan. Hori guztia sektoreko organoek horietarako ezartzen dituzten gogoeta eta zehaztapenekin bat etorritz.

5. Txostenean, Mario Saenz de Buruagaren alegazioa baloratu da (hots, Armiñongo 2. poligonoko 24. lurzatian plaka fotovoltaikoak ez jartzeko eskaera), eta ondorioztatu da etorkizunean 24. lurzatia handitzen bada beste ingurumen-ebaluazio estrategiko bat egin beharko dela.

Plan Berezira sartutakoak:

1. “Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta” izeneko 25. artikulua gaineratu da, IAEan jasotzen diren zehaztapen guztiak biltzeko.
2. IAEaren II. eranskin kartografikoaren 11. planoak aldatu da, eta 100 m-ko babes-banda bat ezarri da Zadorra ibaiaren KBEaren ondoan, AP-68 autobidearen ekialdean. Banda hori azpiegitura berdearen zati da. Ingurumena lehengoratzeko proiektuan, azpiegitura berdea birlandatzea aurreikusten da. Nekazaritza- eta abeltzaintza-proposamena aldatu da, 100 m-ko bandatik kanpo garatzen baita.
3. Eremuaren hegoaldeko zona horretan, 100 m-ko gutxieneko zabalera bermatuko da, eremutik kanpo dauden baina Ekienearenak diren lurzoruak erabiliz. Lurzoru horiek kontuan hartuko dira birlandatzeko proiektuan.
4. Ingurumena lehengoratzeko proiektuan, zortasun-eremuak lehengoratzeko jarduketak jasotzen dira. Hirigintza-araudiaren 19., 22. eta 23. artikulua aldatu dira.
5. 24. lurzatirako aurreikusitako inguratzailea kendu da, zeinak etorkizunean plakak jartzeko aukera emango bailuke; beraz, Mario Saenz de Buruagaren alegazioa onetsi da.

Jatorria:

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea

Ezarritako baldintzak:

1. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) 4. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz, azpiegitura berdearen baldintzatzaile gainjarri bat sartu beharko da. Azpiegitura berde horretan, Lacorzanako urmaelaren eta Zadorra ibaiaren inguruak sartuko dira gutxienez, eta eremuotako ingurumen-balioak zaindu beharko dira.
2. Espedienteak LAGak aplikatzeko arauen II. eranskinaren 16.7 artikuluan eta 1.a.2 apartatuan jasotzen diren neurriak jaso beharko ditu araudian, energia-azpiegiturek biodibertsitatea errespetatzeari dagokionez, txostenaren IV.a apartatuan esan bezala.
3. Dokumentazio grafikoan, bermatu egin beharko da Zadorra ibaiko “ur-lasterrak eta -masak babesteko eremuak” 50 metroko babes-zerrenda osoa hartuko duela, ibilgu publikoaren mugapen-lerrotik hasita, bat etorrita EAeko Ibaiek eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialarekin. Kontuan hartuta balio agrologiko handiko lurzoruaren gaineko jarduketa dela, nekazaritza-arloko foru-organo eskudunak txostena idatzi beharko du, planteatutako jarduketaren ondorioak baloratzeko, bat etorrita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97. bis artikuluan eta Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko 17/2008 Legearen 16.2 artikuluan ezartzen denarekin.

Plan Berezira sartutakoak:

1. “Azpiegitura berdearen” baldintzazaille gainjarria erantsi zaio zonifikazio xehakatuaren planoari, eta azpiegitura berdeari buruzko 27. artikulua gaineratu zaio araudiari.
2. Araudira bi artikulua berri sartu dira: 28. artikulua (Biodibertsitatearen tratamendua) eta 29. artikulua (Babes bereziko antolamendu-kategorian sartuta dauden lursailetatik igarotzen diren linea elektrikoetarako neurri osagarriak).
3. Dokumentazio grafikoa zuzendu da, ibilgu publikoaren mugapen-lerrotik 50 metroko babes-zerrenda bermatzeko, bat etorrira EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean adierazitakoarekin.
4. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak txostena eman zuen 2022ko uztailearen 12an.

Jatorria:

AFaren Nekazaritza Saila. 2022ko uztailearen 12ko txostena.

Ezarritako baldintzak:

1. Entitate sustatzaileak lurzorua jatorrizko egoerara itzultzeko konpromiso formala hartu behar du; hau da, lurzorua nekazaritza- eta abeltzaintza-egoerara itzultzekoa.
2. Xeha aztertu beharko dira ekaitzek edo eguraldi txarrak erreken eta errekaetoen gainazaleko uretan eragin ditzaketen kalteak, instalazio berriek partzelen orografia alda dezaketelako.
3. Nekazaritza-bideak: nekazaritza-lurzatiara iristeko dauden nekazaritza-bideen trazadurak errespetatu beharko dira.
4. Behin-behinean onetsitako dokumentuari, “Ekieneako parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapena dibertsifikatzeko proposamena” txertatu zitzaion; bada, proposamena zehatz aztertu dugu, eta nekazaritza-proiektuak zenbait hutsune eta hobetzeko zenbait alderdi dituela detektatu dugu.

Plan Berezira sartutakoak:

1. 33. artikulua (*Lurzorua jatorrizko egoerara itzultzea*) sartu da Plan Bereziaaren araudira.
2. Instalazio fotovoltaikoa egiteko proiektuak barruan bildu behar du gainazaleko urei eragingo zaien erasanari buruzko azterlana. *Gainazaleko urei egiten zaien erasana* izeneko 32. artikulua gaineratu da.
3. Ereduaren mendebaldean, perimetroko itxituraren trazadura zuzendu da, eremuaren barruko nekazaritza-bideen konexioa bermatzeko.
4. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailarekin elkarlanean, nekazaritza- eta abeltzaintza-proiektu berri bat egin da, instalazio fotovoltaikoak nekazaritza-jarduerari eragiten dion inpaktua konpentsatzeko. Proiektua V. eranskin gisa erantsi zaio IAEari.

Sustraiak enpresak idatzi du “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamena” (V. eranskina), eta martxoaren 6ko data dauka.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamen berria kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak beste txosten bat eman zuen 2023ko apirilaren 13an, Ekienea parke fotovoltaikoaren erasana onargarritzat joz, betiere eragindako lurzatiaren nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusten bazaio.

Jatorria:

AFaren Nekazaritza Saila. 2023ko apirilaren 13ko txostena.

Ezarritako baldintzak:

- Entitate sustatzaileak lurzorua jatorrizko egoerara (hots, nekazaritza- eta abeltzaintza-egoerara) itzultzeko konpromiso formala sinatu beharko du, edo antzeko dokumentu bat.
- Xehe aztertu beharko dira ekaitzek edo eguraldi txarrak erreken eta errekaetoen gainazaleko uretan eragin ditzaketen kalteak, instalazio berriek partzelen orografia alda dezaketelako.
- Nekazaritza-bideak: proiektuan sartuta dauden nahiz proiektutik kanpo dauden nekazaritza-lurzatiak daramaten bideen trazadura errespetatuko da. Instalazioak jartzeko lanek bideari eragingo badiote, Nekazaritza Egituren eta Landa Azpiegituren Atalari (Nekazaritza Garapeneko Zerbitzua-Nekazaritza Zerbitzua-Arabako Foru Aldundia) kontsultak egitea proposatzen dugu, irtenbide tekniko egokiena bilatzeko. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuak txosten tekniko eman beharko du jarduketa egin aurretik.
- Balioetsienez, proiektuaren bizitza baliagarria, hala egokitzen denean, nahitaez bete beharko dira prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak nahiz ingurumenari jarraipena egiteko neurriak, eta Planaren artikuluetan jaso beharko lirateke neurriok.
- “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamena” 150 hektareako eta 3,75 nekazaritza-lan unitateko ustiategi estentsiboa izatetik, askoz ere ustiategi intentsiboagoa izatera pasa da, 14,64 hektarea eta 10,85 nekazaritza-lan unitatekoa baita; hortaz, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusteko helburua lortu du (are, hobetu ere egin du), lursailen ustiapen fotovoltaikoak iraun bitartean lurzorua-galera konpentsatzeko.

Kontuan hartuta konpromisoa hartu dela balio estrategiko handiko lursailak parke fotovoltaikoaren bizitza produktiboa amaitutakoan (25 urte) jatorrizko egoerara itzultzeko (nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenerako), nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezarriko dela eta ustiapena hobetuko dela nekazaritza-lurri eragindako erasana konpentsatzeko, **onargarria** dela balioesten da, betiere eragindako lurzatian nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerari eusten bazaio.

Plan Berezira sartutakoak:

- Baldintza bat jaso da 33. artikuluan (Lurzorua jatorrizko egoerara itzultzea).
- Baldintza bat jaso da 32. artikuluan (*Gainazaleko urei egiten zaien erasana*).
- Baldintza bat jaso da 20. artikuluan (*Landa-bideek eragindako zortasunak eta nekazaritza-bideetarako baldintzak*).
- Baldintza bat jaso da 25. artikuluan (Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak, klima-aldaketa kontuan hartuta).
- V. eranskin gisa erantsi zaio IAEari. “Ekienea parke fotovoltaikoan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapen dibertsifikatua ezartzeko proposamen” berria, Sustraiak enpresak egindakoa.

4. HAUTATUTAKO AUKERAREN JUSTIFIKAZIOA

Neurri handiko parke fotovoltaiko batek ezarpen-baldintza zehatzak behar ditu, bideragarria izan dadin. Eguzkitapen- eta irisgarritasun-baldintza egokiak eta tamaina nahikoa dituen lursaila egotea faktore kritikoa da, baita hurbileko azpiestazio elektriko batera konektatzeko

aukera egotea ere. Arrazoi geografikoak (lurralde txiki eta modu trinkoan jendeztatua) eta klimatikoak tarteko, EAE barruko lurzoru-bilaketa Arabaren hegoaldera mugatzen da ia-ia.

Proposatutako instalazio fotovoltaikoa kokatzeko lursailik egokiena identifikatzeko, lurralde-azterketa luzea egin da. Prozesuan, aukera ugari baztertu dira, eta ondorioztatu Lacorzanaren ingurua dela proiektua garatzeko aukerarik onena.

Kokapena aukeratu ondoren, proiektua ezartzeko hainbat aukera aztertu dira, eremuaren mugaketari eta jarduketari berari dagokienez.

Horren arabera, zenbait aldatiba garatu dira, honako ondorio honekin: 0 aukerak edo esku-hartzerik gabekoak eragiten dio gutxien ezarpen-eremuko ingurumenari zuzenean. Alabaina, EAEn deskarbonizazioan eta energia- eta ekonomia-ereduaren jasangarritasunean aurrera egiteko giltzarritzat jotzen den jarduketa bati uko egitea ekarriko luke aukera horrek.

1. eta 2. aukerak helburu orokor berberei erantzuten badiete ere, emaitza ez litzateke berbera izango. 2. aukerarekin, nahiz eta lurzoru berbera kontsumitu, zailagoa da energia-sorkuntzako helburu ezarrietara (135 MW) hurbiltzea, plakak jartzeko egokiak ez diren lurzoruak dauzkalako, iparraldera begirakoak.

Ezarpenaren ondorioz ingurumenari eragingo zaizkion erasanei erreparatuta, bi aukeren artean ez dago alde handirik. Bestetik, aintzat hartu behar dugu sortutako inpaktuak itzulgarriak direla, instalazioak erasan mugatua eragingo baitio euskarri-lursailari eta lursailak, bizitza baliagarria amaitutakoan, berriro hartu ahalko baititu lurzoru urbanizaezinaren berezko erabilerak eta jarduerak.

Edonola ere, 2. aukerak faktore negatibo batzuk dauzkala balioetsi da, eta, beraz, ez da hain erakargarria:

- Plakak jarriko dira malda handiko eta landaredi ugari eremuetan, eta lur-mugimendu gehiago egitea eta lursail naturala aldatzea ekarriko du horrek.
- Landarediari eragingo zaion erasana askoz ere handiagoa izango da, mendi-hegaleko landaredia moztu eta sasia kendu beharko litzatekeelako plakak jartzeko.
- Paisaia-inpaktua handiagoa izango litzateke, plakak gehiago ikusiko liratekeelako malda handiagoko tokietan jarriz gero.
- Plakek eremuaren iparraldeko erkameztiari eta lotutako habitatei erasango liekete, eta faunarako aterpe garrantzitsuak dira horiek.

Gogoeta horietan oinarrituta, 1. aukera hobetuaren alde egin da; batetik, ekarpen handiagoa egingo zaiolako EAEn energia- eta ekonomia-ereduaren jasangarritasunari, eta, bestetik, ingurumen-inpaktua txikiagoa izango delako proiektua lurraldean fisikoki ezartzeari dagokionez. Gainera, Plan Bereziari egin zaion ingurumen-ebaluazio estrategikoaren bidez, ahalik eta gehien arinduko da inpaktu hori.

5. PLAN BEREZIAREN INGURUMEN-JARRAIPENERAKO AURREIKUSITAKO NEURRIEN AZALPENA

Plan Bereziak eta berori garatzen duen parke fotovoltaikoa eraikitzeke eraikuntza-proiektuak eremu eta helburu berberak dauzkate. Parke fotovoltaikoaren eraikuntza-proiektuari ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaionez, atal honetan Plan Bereziaren ingurumen-jarraipena egiteko aurreikusten diren neurriak gutxi gorabeherakoak dira, eta proiektuaren ingurumen-jarraipenerako ezartzen diren neurrien mende egongo dira.

Ingurumen-zaintzako programaren helburua da jarduketan garapena kontrolatzea, identifikatutako ingurumen-erasanak murriztu edo saihestea eta ingurumen-dokumentu honetan ezartzen diren eta ingurumen-organoak bere txostenean ezar ditzakeen ingurumen-

integrazioko neurrien betetze-maila gainbegiratzea. Hala, honako hauek dira helburu nagusiak:

- Plan Bereziarekin garatuko diren obra guztiak behar bezala egiten direla egiaztatzea, aurreikusitako prebentzio- eta zuzenketa-neurriak bete daitezen.
- Eragindako inpaktuak aurreikusitakoak direla egiaztatzea, bai inpaktuaren tamainari dagokionez, bai eragindako elementuari dagokionez.
- Ingurumen-dokumentu honetan aurreikusi gabeko inpakturik eragiten den detektatzea eta, beharrezkoa bada, zuzenketa-neurri egokiak hartzea.
- Hartutako prebentzio- eta zuzenketa-neurrien bilakaeraren jarraipena egitea eta neurrien eraginkortasuna egiaztatzea. Eraginkorrak ez badira, porrota zerk eragin duen zehaztea eta neurri berriak ezartzea.
- Obra Zuzendaritzari proiektuaren ingurumen-alderdiei buruzko aholkuak ematea.

5.1 Kontrol-adierazleak

Obra Zuzendaritza arduratuko da proposatutako zuzenketa-neurriak ondo ezartzen direla eta eraginkorrak direla bermatzeaz, bai eta, hala badagokio, neurri berriak ezartzeaz ere.

Hainbat fase bereizi dira, eta askotariko kontrolak proposatu dira fase bakoitzerako:

- Garapen-proiektuak idazteko fasea.
- Obren fasea.

1.- Garapen-dokumentuak kontrolatzeko fasea

Plan Bereziaren ondoriozko eraikuntza- eta hirigintza-proiektu guztiak behar diren dokumentu eta azterlan espezifiko guztiak dauzkatela egiaztatuko da (hala nola, IIEa eta horri lotutako eranskin guztiak, hondakinak eta eraikuntza- nahiz eraiste-materialak kudeatzeko proiektua edota txosten sektorialak eta obra-baimenak).

2.- Obren fasea

- Obra-plana kontrolatzea.
- Jarduera onen eskuliburua kontrolatzea.
- Eraginpeko eremua kontrolatzea.
- Hondakinen eta indusketako soberakinen kudeaketa kontrolatzea.
- Landare-lurraren eta lehengoratzeko-prozesuaren kudeaketa kontrolatzea.
- Zarata eta airearen kalitatea kontrolatzea.
- Obra amaieran lursaila garbitzeko kanpaina nola gauzatzen den kontrolatzea.
- Obren fasean zuzenketa-neurriak betetzen doazela kontrolatzea.
- Plan Berezia garatzen duten proiektuetan jasotzen diren ingurumen- eta paisaia-integrazioko neurriak kontrolatzea.
- Fauna kontrolatzea (habiak detektatzea, ugalketa-sasoia saihestea, erasanak).
- Iturburuak egon daitezkeela kontuan hartzen dela eta lanek arriskuen gainean eta uraren kalitatean izan dezaketen eragina konpontzen dela (urak bildu eta bideratu) kontrolatzea.
- Kultura-ondarea kontrolatzea.

5.2 Kontrol-neurriak

Aurreikusitako esku-hartzeek eragindako inpaktuen jarraipena egiteko eta proposatutako zuzenketa-neurriak betetzen direla eta eraginkorrak direla (batez ere, obren fasean) ziurtatzeko kontrol-neurriekin, honako hauek betetzen ote diren egiaztatuko da:

- Ingurumen-dokumentu honen dagokion apartatuan zehaztutako neurriak.

- Ingurumen-organoak ingurumen-inpaktuari buruzko txostenean ezartzen dituen neurriak (21/2013 Legearen 47. artikulua).

Armiñongo Udala arduratuko da obren ingurumen-zaintza egokia dela ziurtatzeaz eta Plan Bereziaren aldaketa puntuala garatzeko dokumentuak idazteaz. Horretarako, ingurumen-teknikari espezializatu bat eduki beharko du obrek iraun bitartean. Jarraipena egiteko, honako adierazle kualitatibo hauek proposatzen ditugu:

Kontrola:

Eraikuntza- edo hirigintza-proiektuaren II Ea idaztea

Kontrol-adierazlea:

Azterlana eta lotutako eranskinak egitea.

Betetzeko helburua:

Ingurumen-arloko legedia eta IAEaren baldintzak betetzea.

Aldizkakotasuna:

Obrak hasi baino lehen.

Kontrola:

Hegazti-faunari, anfibioei eta odonatuiei buruzko azterlanetan jasotzen diren zehaztapenak betetzea.

Kontrol-adierazlea:

Azterlan espezifikoetan jasotzen diren proposamenak garatu eta ezartzea.

Betetzeko helburua:

Proposatutako zehaztapenak betetzea.

Aldizkakotasuna:

Obrak hasi baino lehen.

Kontrola:

Proiektuaren II Earen testuan ingurumen-azterketa estrategikoan adierazitako jarraibideak/ildoak sartu direla egiaztatzea.

Kontrol-adierazlea:

Proiektuaren ingurumen-irizpideak betetzea eta txertatzea (batez ere, KBEan eta Lacorzanako urmaelean) eta egindako azterlan espezifikoetan adierazitako neurriak betetzea.

Paisaia-integrazioari buruzko azterlana egitea, oraingo proposamenean oinarrituta.

Betetzeko helburua:

Plan Bereziak garatzen dituen proiektu eta obretan, bermatu egingo da tartean diren administrazioek ematen dituzten baimenetan, lizentzietan, txostenetan eta abarretan jasotzen diren ingurumen-arloko zehaztapenak betetzen direla.

Aldizkakotasuna:

Obrak hasi baino lehen.

Kontrola:

Airearen eta soinuaren kalitatea murrizten duten partikula esekirik dagoen kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Lur-mugimenduko lanetan partikula esekiak hautematea.
Erabilitako makineriaren egoera eguneratzea eta lan-ordutegiak betetzea.

Betetzeko helburua:

Kutsadura akustikoari eta atmosferikoari buruzko legedia betetzea.
Ingurumen-zarata legez ezarritako mugen barruan edukitzea (212/2002 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-emisioak arautzen dituena, eta bibrazioei buruzko UNE 22-381-93 araua).

Aldizkakotasuna:

Astero.

Kontrola:

Lurzoru-ingurunea kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Lur-mugimenduko lanetan partikula esekiak hautematea.
Erabilitako makineriaren egoera eguneratzea eta lan-ordutegiak betetzea.

Betetzeko helburua:

Obrek iraun bitartean azalera biluzietan lurzorua galtzea.
Landare-lurra ondo erauzi eta pilatzea, bat etorrira ingurumen-adierazpen estrategikoan jasotzen diren jarraibideekin.

Aldizkakotasuna:

Astero.

Kontrola:

Biztanleria kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Giza habitata.

Kaltetu daitezkeen zerbitzuak lehengoratzea.

Bide-azpiegiturak egoera onean edukitzea.

Betetzeko helburua:

Biztanlegunean hautsaren isuriak eta ondorioak zaintzea, lehorte-sasoietan. Hala badagokio, azalera igorleak ureztatzea.

Kaltetuko diren zerbitzu guztiak lehengoratzea.

Obretarako sarbideak eta alboko errepideak garbitzea.

Aldizkakotasuna:

Aparteko gertaera klimatologikoetan eta zerbitzuak berritzeko fasean.

Astero.

Kontrola:

Ur-lasterrek eta gainazaleko hidrologia kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Hurbileko ibaiak uher egotea.

Tokiko ur-isuriei, Zadorra ibaiari eta Lacorzanako urmaelari ezusteko erasanak eragitea.

Betetzeko helburua:

Hurbileko ur-lasterrei eta hezeguneei eragiten ez zaiela bermatzea eta horri buruzko zuzenketa-neurriak betetzea.

Zuzenketa- eta babes-neurrietan adierazitako parametroak

Aldizkakotasuna:

Astero.

Kontrola:

Espezie inbaditzaileak kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Jarduketa-eremuan espezie aloktonoak agertzea.

Betetzeko helburua:

Sasiak kentzeko fasean espezie inbaditzaileak ez dagoela egiaztatzea eta landare-lurretan espezie inbaditzaileen hazirik ez egotea.

Aldizkakotasuna:

Obrak hasi baino lehen.

Kontrola:

Hondakinen kudeaketa kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Obran gune garbia egotea eta hondakinak ondo kudeatzea.

Betetzeko helburua:

Obraren Zuzendaritza Fakultatiboak kontrolatu behar du obraren exekuzioa, eta hondakinak kudeatzeko planaren jarraipena exekuzioaren zati da.

Aldizkakotasuna:

Hilero.

Kontrola:

Faunari eragindako erasana kontrolatzea.

Kontrol-adierazlea:

Intereseko faunari erasatea.

Betetzeko helburua:

Idazten ari diren azterlan espezifikoei jasotzen diren neurriak betetzea.

Faunari eragindako erasana murriztea.

Obrako ibilgailuek edo makineriak eragindako edo harrapatutako banakorik dagoen kontrolatzea.

Aldizka, inguruko hegazti-faunari, anfibioei eta odonatuei eragindako erasana egiaztatuko da, in situ; bereziki, itxituraren aurkako talkei dagokienez. Emaitzen arabera txostenak idatziko dira, eta, hala badagokio, zuzenketa-neurri berriak proposatuko dira.

Aldizkakotasuna:

Obrak hasi baino lehen eta, gero, hilean behin.

Kontrola:

Ondarea

Kontrol-adierazlea:

Arkeologia- eta arkitektura-elementuak agertzea.

Legedia betetzea.

Betetzeko helburua:

Idazten ari diren azterlan espezifikoetan jasotzen diren neurriak betetzea.

Faunari eragindako erasana murriztea.

Obrafo ibilgailuek edo makineriak eragindako edo harrapatutako banakorik dagoen kontrolatzea.

Aldizka, inguruko hegazti-faunari, anfibioei eta odonatuei eragindako erasana egiaztatuko da, in situ; bereziki, itxituraren aurkako talkei dagokienez. Emaitzen arabera txostenak idatziko dira, eta, hala badagokio, zuzenketa-neurri berriak proposatuko dira.

Aldizkakotasuna:

Lur-mugimenduen fasean.

Kontrola:

Paisaia eta ingurumena lehengoratzeko

Kontrol-adierazlea:

Hirigintza-proiektua idazteko fasean ingurumena eta paisaia lehengoratzeko programa bat sartu dela egiaztatzea, Plan Bereziaren fase horretan aurkeztutakoa eredutzat hartuta.

Betetzeko helburua:

Birlandaketaren eta instalazio berriaren ikusgaitasunaren emaitzak egiaztatuko dira, toki desberdinetatik.

Eremua aldizka ureztatuko da, eta birlandaketaren ostean aurrera egin ez duten zuhaitz-aleak ordezkatzeko dira.

Aldizkakotasuna:

Landaketa-fasean eta berme-aldian.

Kontrola:

Ingurumena lehengoratzeko

Kontrol-adierazlea:

Birlandaketarako erositako espezieak autoktonokoak direla egiaztatzea.

Betetzeko helburua:

Espezie egokiak hautatzea berdeguneak birlandatzeko.

Aldizkakotasuna:

Landaketa-fasean.